

Tokian tokiko kirol-esparruan, arrazakeriaren eta arraza bereizkeriaren aurka borrokatzeko oinarrizko eskuliburua



<u>1. HITZAURREA</u>	3
1.1 Score proiektua.	
1.2 Testuingurua - Abiapuntua.	
1.3 Hartzaileak.	
1.4 Eskuliburuaren helburuak eta xedea.	
1.5 Kontzeptu-esparrua.	
1.6 Europako lege-esparrua.	
1.7 Hirirako abantailak.	
<u>2. ARRAZAKERIAREN AURKAKO BORROKA KIROLAREN BIDEZ</u>	20
2.1 Tokian tokiko beharren ebaluazioa.	
2.2 Kirolaren bidez arrazakeriaren aurka borrokatzeko dekalogoak.	
<u>3. KIROL ESPARRUKO ARRAZAKERIAREN AURKAKO BORROKA</u>	29
3.1 Arrazakeria-gertakarien tokiko prebentzioa.	
3.2 Tokian tokiko kirol-jardueretan arrazakeria-gertakariak antzematea eta horien aurrean jardutea.	
<u>4. PRESTAKUNTZA PROPOSAMENA</u>	43
<u>5. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAKO MATERIALAK</u>	45



1. HITZAURREA

Kirolek mundua aldatzeko ahalmena dute (Nelson Mandela)

1.1 Score proiektua.

SCORE, Europar Batasunak finantzatu duen Kirol Hiriak (scoreproject.net), Migrazioetako Estatu Idazkaritzaren Arrazakeria eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak zuzendutako proiektua da eta Europako sei herrialdetako¹ (Austria, Espainia, Frantzia, Grezia, Irlanda eta Suedia) bazkideak ditu. Europar Batasunak finantzatu du, Europako Batzordearen "Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak" (CERV, ingelesez) programaren barruan, eta migratzaile, asilo-eskatzaile, iheslari eta gutxiengo etnikoak gizarteratzeko kirol jardunak sustatzeko tokian-tokian garatzen diren metodoak identifikatu, aztertu eta partekatzean datza. Kirola gizarteratzeko eta arrazakeria eta arraza-bereizkeria prebenitzeko tresnatzat erabiltzea du helburu. Xede nagusia kirol barneratzailea edo inklusiboa sustatzeko eta arrazakeriaren aurka borrokatzeko Europako hirien koalizioa garatzea da. Dokumentu hau SCORE proiektuaren 13. lan- sortaren esparruaren barruan argitaratu da.

1.2 Testuingurua: abiapuntua.

Score proiektuaren jarduketa-eremuen inguruko bibliografia zabala dago:

- Alde batetik, mundu akademikoak hainbat ikuspuntu eta planteamendu teoriko eta ezaguera-eremu (soziologia, psikologia, kirola, ekonomia, etab.) eskaintzen dizkigu, kirolari eta arrazakeriaren aurkako borrokari buruzko askotariko ekarpenak eginez.
- Bestalde, gero eta gomendio, orientazio, jardunbide eta eskuliburu gehiago daude agintari publikoek (estatukoak, erkidegoetakoak eta tokikoak) arrazakeria eta arraza bereizkeriaren aurkako borroka beren agenda politikoetan txertatzeko moduari buruz eta lagungarri izan daitezkeen gobernantza sistemei buruz.

¹<https://scoreproject.net/consorcio/>



Hala ere, ez dira hain ugariak teoriaren eta praktikaren arteko lotura egiten saiatzen diren ekarpenak², eta are gutxiago tokiko erakundeei zuzendutako gomendio praktikoak eskaintzen dituztenak.



Tokian tokiko kirol-esparruan, arrazakeriaren eta arraza bereizkeriaren aurka borrokatzeko oinarrizko eskuliburu honek (aurrerantzean, Eskuliburua) aipaturiko bi gaiak jasotzen ditu, arreta berezia jarrita tokiko agintariei zuzendutako gomendio praktiko eta prestakuntzarako orientazioetan, arrazakeria eta arraza-bereizkeriaren aurkako kirolaren bidezko borroka eraginkorrerako. Hauexek dira Eskuliburua egituratzen duten bi atal nagusiak:

ARRAZAKERIAREN AURKAKO BORROKA TOKIAN TOKIKO KIROLETIK ETA KIROLEAN BERTAN

- a. Lehenik, **kirolaren bidez** arrazakeriaren aurka nola borrokatu jakin behar da. Hau da, nire udalerriko kirol kudeaketaren arduradun naizen heinean, udalerrian egiten diren kirol jarduerak ezagutzen al ditut? Udalerriko kirol-espazioak komunitatearen kirol-jardunetara egokিতuta daude? Udalerriko dibertsitatea tokiko kirol-jardunean txertatzen duen ikuspeirik ba al da?
- b. Bigarrenik, Eskuliburuak zenbait gomendio praktiko eskaintzen ditu **tokian tokiko kirol-esparruko** arrazakeriaren aurka borrokatzeko. Nola jardun arrazakeria-egoerak gertatzen direnean? Zein izan daitezke arrazan oinarrituko bereizkeria-arazoak konpontzeko aukerak? Nola antolatu daiteke biktimei zuzendutako arreta tokiko eremuan?

Galdera horiei erantzuteko, Eskuliburuak esparru kontzeptuala eta teorikoa proposatzen du, gizarte-kohesioa ezinbesteko faktoretzat jotzen duena. Score proiektuaren Plan-gintza Estrategikoko Ereduan³ azaltzen denez, kirola plataforma paregabea da gizarte-kohesioa modu aktiboan sustatzeko, giza eskubideak defendatzeko eta komunitate oparo eta erresilienteak eraikitzeko, kirolaren esparruan eta kirolaren bidez.

² Louis Moustakas (2024) Sport for social cohesion: a conceptual framework linking common practices and theory. *Sport in Society*, <https://doi.org/10.1080/17430437.2024.2304231>

³ https://scoreproject.net/wp-content/uploads/2024/03/SCORE-Project_Strategic-Planning-Model_Combatting-Racism-in-and-through-sports_compressed.pdf



Score proiektuaren esparruan gizarte-koehioak zer esan nahi duen abiapuntu hartuta, Eredu Sozio - Ekologikoan oinarrituko gara, esparru ezin hobea baita ezaguera eta jardunbideak uztartzeko. Hiru jarduketa-maila definituko dira (banakakoa, komunitarioa eta sistemikoa) arrazakeria eta arraza-bereizkeriaren aurka borrokatzeko jardunbide zehatzak lotzeko, tokiko kirol esparruan eta tokiko kirolaren bidez.

Azkenik, Eskuliburua egituratzen duten bi ataletan sakondu aurretik, zenbait planteamendu definitu dira (dekoloniala, interseksionala eta zeharkakoa), Score proiektuaren auzi nagusia jorratzeko ikuspuntu egoki eta beharrezkoa eskaintzen baitute, hots, tokiko arrazakeria eta arraza-bereizkeriaren aurkako borroka eta prebentzioa.

KIROLAREN inguruko oinarrizko Eskuliburu honetan azaltzen da nola lortu dezaketen tokiko agintariek, kirola sustatzeaz gain, **giza eskubideekiko errespetua bermatzea, berdintasun baldintzetan eta udalerrietan dagoen dibertsitatearen** ikuspegia kontuan izanda. Kirola udalerrietako **gizarte-koehioaren** funtsezko elementu gisa bultzatu, sustatu eta diseinatzeko eskuliburua da.

1.3 Hartzailleak.

Eskuliburua Europako tokiko administrazio publikoei zuzendua da, batez ere, kirolaren esparruarekin lotura duten pertsonei. Agintari politikoak eta kirol-esparruko arduradun tekniko edo udal langileak dira Eskuliburuaren hartzaille nagusiak: udalaren kirol-eskoletako arduradunak, kirol-espazioetako langileak, etab.

Tokiko gobernantzan, zeharkakotasuna ezinbestekoa da; beraz, giza eskubideen, berdintasunaren, bereizkeriarik ezaren eta dibertsitate zein gizarte-koehioaren kudeaketaren tokiko esparruan eginkizun garrantzitsua duten eragile guztiei zuzentzen zaie Eskuliburua.

Eskuliburuaren hirugarren talde hartzaillea komunitatea bera da, hots, proiektuaren esparruarekin lotura duten helburuak dituzten gizarte-erakundeen multzoa; ondorioz, kirol-erakundeak eta giza eskubideen defentsarako erakundeak ere Eskuliburuaren hartzailleen artean daude.

Azkenik, Eskuliburua erraz egokitu daiteke kirolaren inguruko beste eremu batzuetara, hala nola federazio nazional edo eskualdeko federazio, kirol-klub, gizarte-erakunde eta abarretara. Kasu horietan, jardunbide eta gomendio guztiak ez dira aplikagarriak izango, baina gehienak bai, eta berariaz adieraziko dira aplikagarriak ez direnak.



1.4 Eskuliburuaren helburuak.

- Europako toki-erakundeen kirol-esparruan jarduteko gaitasun eta trebetasunak indartzea, kirola gizarte kohesiorako eta arrazakeria eta arraza bereizkeria prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko tresna izan dadin.
- Kirolaren esparruko partaidetzako gobernantza sustatzea, kirola gizarte kohesiorako eta tokian-tokian arrazakeria eta arraza-bereizkeria prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko tresna izan dadin.

1.5 Kontzeptu-esparrua.

Atal honetan definituko dira Eskuliburuaren funtsezko termino eta kontzeptuak Score proiektuaren ikuspuntutik, hau da, proiektu horren xede eta helburuekiko lotura ezarrita. Eskuliburuaren funtsezko kontzeptu gehienak sakonki eztabaidatu dira eta ekarpen ugari jaso dituzte; beraz, ekarpen nagusien sistematizazio labur batetik hasiko gara, betiere proiektuaren xede eta helburuen ikuspuntutik, toki erakundeei zuzendutako jardunbideen gomendioak osatzeko aukera ematen duen sistematizazio-proposamen batera igaro aurretik.

1.5.1. Gizarte-kohesioa.

Oso ugariak dira gizarte-kohesioaren inguruko ekarpen eta eztabaidak. Hona hemen erreferentzia garrantzitsuenetako zenbait, politika publikoaren ikuspegitik:

- Nazio Batuak (2016) Leaving no one behind: the imperative of the inclusive development. <https://www.un.org/esa/socdev/rwss/2016/full-report.pdf>
- ELGA (2012). Perspectives on Global Development. https://www.oecd-ilibrary.org/development/perspectives-on-global-development-2012_persp_glob_dev_2012-en
- European Committee for Social Cohesion. A new Strategy for Social Cohesion, Europako Kontseiluaren Ministroen Kontseiluak 2004an onartutako. https://www.coe.int/t/dg3/socialpolicies/socialcohesiondev/source/RevisedStrategy_en.pdf

Nazioarteko beste erakunde batzuek ere, hala nola Munduko Bankuak edo Goi Mailako Hezkuntza Egiaztatze Europako Partzuergoak (ECA), ekarpenak egin dituzte gizarte-kohesioa definitzeko, Europar Batasuneko politika nagusietako bat baita. Ondorioz, bai Europako Parlamentuak, bai Europako Batzordeak, ekarpenak egin dituzte.



rian bizi diren pertsonena da, eta barrukoak ditu kirolaren inguruko pertsona horien gaitasunak, trebetasunak, jarrerak, balioak, interesak etab.;

c. eta **maila intersubjektiboak** esparru komunitario eta interpertsonalarekin du zerikusia; beraz, barrukoak ditu gizarte-erakunde formal eta ez-formalak, baita erakunde eta/edo elkarteen arteko harremanak ere.

Hiru dimentsioetan oinarritutako gizarte-kohesioaren definizio horri eta Eredu Sozio - Ekologikoak proposatzen dion maila jakinetako operatibitateari esker, SCORE proiektuak toki-erakundeen jardunak artezten ditu modu zehatzean, kirolaren esparrutik arrazakeria eta arraza-bereizkeria prebenitu eta horien aurka borrokatzeko. Proiektuaren xedeak kontuan hartuta, proposamenak egiturazko eta komunitatearen mailetara soilik mugatuko dira.

1.5.2. Integrazioa kirolean eta kirolaren bidez.

Kirolean eta kirolaren bidez gertatzen den integrazioari buruzko ekarpen teorikoa Agergaardek⁶ garatu zuen: Lehenengo integrazio-motak kirol-esparruko parte-hartzaile eta kirol-komunitateko kide bihurtzea dakar, eta bigarrenak esan nahi du kirolean parte-hartzeak gizarteko beste esparruetarako sarbidea ematen duela (hots, lan-merkatua, hezkuntza, herritarrak). Agergaardek dioen bezala, kirolaren bidezko integrazioa zaila da lortzen, kirolaren azpimunduaren eta gizarteko beste esparru batzuen arteko harremana ez baita oso estua. Baieztapen horrekin bat etorritik, kirolak kapital soziala sortzeko duen garrantziari buruzko azterlanek agerian utzi dute kirolak eginkizun garrantzitsua izan dezakeela⁷. Kapital soziala baliabide eta sareen multzoa da, komunitate bateko pertsonak konektatzen dituztenak eta helburu erki-deak lortzeko elkarrekin lan egiteko aukera ematen dietenak. Baliabide horien artean, badaude konfiantza, elkartasuna, elkarrekotasuna eta lankidetzak. Sare horiek komunitate batean bizi diren pertsonen arteko leialtasun- eta laguntza-lotura moduan ere uler daitezke. Kapital sozialak demokraziaren kalitatea ere islatzen du; izan ere, kapital sozialaren mailak herritarren eta gobernuaren arteko konfiantza-mailan izan dezake eragina⁸.



⁶ Agergaard, S. (2018). Rethinking sports and integration: Developing a transnational perspective on migrants and descendants in sports. Abingdon, Oxon: Routledge.

⁷ Spaaij, R. (2012). Beyond the playing field: Experiences of sport, social capital, and integration among Somalis in Australia. *Ethnic and Racial Studies*, 35:9, 1519–1538, DOI: 10.1080/01419870.2011.592205 y Walseth, K. (2008). Uniendo y vinculando el capital social en el deporte: experiencias de mujeres jóvenes de origen inmigrante. *Deporte, Educación y Sociedad*, 13 (1), 1–17. <https://doi.org/10.1080/13573320701780498>

⁸ Robert Putnam, *Making Democracy Work: Civic Traditions in Modern Italy*, (1995)

1.5.3 Zeharkako ikuspegiak.

SCORE proiektuaren eta Eskuliburu honen esparruan, lehenago adierazitakoa osatzen duten ikuspegiak hartu behar dira kontuan:

A. Ikuspegi dekoloniala.

Gaur egungo munduan nagusi diren kirolek berariaz lagundu zioten kolonialismoari, eta potentzia kolonialek euren boterea zabaldu eta indartzeko baliatu zituzten⁹. Aldiz, Europakoak ez diren beste kirol edo jarduera fisikoen mota batzuei eta kirolean izan duten eraginari garrantzia kendu izan zaie edo erabat baztertu izan dira¹⁰.

Eskuliburu honetan proposatzen den ikuspegi dekolonialak **kirola termino inklusibo moduan lekutzeko beharra azpimarratzen du, gizarte-jarduera desberdinak adierazten baititu eta tokiko jardunbide eta esanahiak indartzen**¹¹.

Tokiko administrazioek ongi jakin, galdetu eta ulertu behar dute zein diren beren udalerrietan eskatu eta egiten diren kirol-jardunak eta jardun fisikoak. Elkarrizketa eta ezaguera hori abiapuntu hartuta eta udalerrietan bizi diren pertsonen istorio, esperientzia eta ezaguerei arreta jarrita, ikuspegi dekoloniala duen udal kirolaren estrategia/plana diseina daiteke, tokiko testuinguru eta beharrei egokitua eta munduan ezarri diren ereduak errepikatu gabe, udalerriko errealitate eta beharretara egokituta ez gotea gerta baitaiteke.

B. Ikuspegi interseksionala.

Interseksionalitatea bereizkeria anizkoitzaren aurkako analisi eta esku hartze tresna bat da, dibertsitatearen tratamendurako hurbilketa bat, **generoaren ikuspuntutik**. Aldi berean, dibertsitatea gaingitu egiten du zenbait faktoreren arteko erlazioa islatuz, esaterako, **klase soziala, jatorri etnikoa-arraza, prestakuntza, adina, sexu-orientazioa eta iden-titatea, desgaitasuna, hizkuntza edo erlijioa**. Faktore horiek, elkarrekin erlazionatzean, pribilegio- eta/edo zapalketa-egoerak sorrazten dituzte eta desberdinkeria eta bazterkeria eragin ditzakete. Ikuspegi interseksionala duen kirol-arloko tokiko politika bat diseinatzeko kontuan hartu behar dira faktore horiek guztiak eta horien arteko loturak, analisisan, diseinuan, esku hartzean eta ebaluazioan ere bai.



⁹ Sepandarmaz, M., Methodological challenges and opportunities in working within a participatory paradigm in the context of sport, forced migration and settlement: an insider perspective, (2022)

¹⁰ Carrington, 2015.

¹¹ Besnier, Brownell y Carter *Antropología del deporte: Emociones, poder y negocios en el mundo contemporáneo*, (2019).



C. Zeharkako ikuspegia.

Zeharkakotasuna ezinbestekoa da tokiko gobernantzaz ari garenean. Eskuliburuak esanahi bikoitzean proposatzen du zeharkako ikuspegia. Alde batetik, **gaien zeharkakotasuna** proposatzen da, hau da, kirolaz eta jarduera fisikoaz gain, giza eskubideekin, berdintasunarekin, bereizkeriarik ezarekin eta dibertsitate zein gizarte kohesioaren kudeaketarekin lotutako gai guztiak ere aintzat hartzea. Bestalde, **zeharkakotasun organikoa** proposatzen da, tokiko kirol-estrategian, gizarte-kohesioan eta arrazakeriaren aurkako borrokan parte hartu behar duten eragile eta erakundeen izaerari dagokionez. Ondorioz, kontuan hartu beharko dira:

- Kirol Sailari lotutako udal langile guztiak, agintari politikoak, arduradun teknikoak, udalaren kirol-eskoletako arduradunak, kirol-espazioetako langileak...;
- Kirolarekin eta adierazitako gaiekin zerikusia duten gizarte-erakunde guztiak;
- Tokiko inguruneke erreferentziako federazio eta kirol-klubak.

A.1.5.4 Eskulibururako kontzeptuen definizioa.

BEREIZKERIA

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen aburuz, "bereizkeria" terminoa, Eskubide Zibil eta Politikoen Itunean erabiltzen den moduan, honela ulertu behar da: "edozein bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenespen, baldin eta hori arrazoi jakinetan oinarritzen bada, hala nola arraza, larruaren kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, jatorri nazional nahiz soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo



beste edozein inguruabar sozial, horren xede edo ondorioztat izanik giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aitortpena, izatea edo egikaritzea deuseztatzea edo kaltetzea”, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea. 18. Ohar Orokorra.

ARRAZA BEREIZKERIA

Arraza Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioaren (CERD, ingelesez) 1. artikulua arabera, “arraza bereizkeria” da edozein bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenespen, baldin eta hori oinarritzen bada arraza, larruaren kolore, leinu edo jatorri nazional nahiz etnikoaren ondoriozko arrazoietan, xede edo ondorioztat izanik giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aitortpena, izatea edo egikaritzea deuseztatzea edo kaltetzea, politika, ekonomia, gizarte, kultura esparruetan edo bitzita publikoko beste edozein esparrutan.

GIZARTE BAZTERKETA

Europar Batasunaren esparruan, Migrazioen Europako Sarearen 2.0 Migrazio eta Asiloari buruzko Glosarioan jasotzen denez, gizarte-bazterketa da pertsona bati aurrerapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egin eta onura ateratzea galaraztea. Bazterketa “*elkarri lotuta dauden arazoan (esaterako, langabezia, kualifikazio eskasa, dirusarrera txikiak, etxebizitza desegokia, osasun txarra eta familiaren desintegrazioa) konbinazio baten*” emaitza da. Ondorioz, parte hartzea giza eskubideen aurretiazko baldintza eta xedea da aldi berean. Bazterketaren kontrakoa “*inklusioa*” da.

MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

Eskualdeetako Batzordearen Maila Anitzeko Gobernantzari buruzko Liburu Zuriaren arabera, maila anitzeko gobernantza da “Europar Batasunaren, Europar Batasuneko estatuen eta eskualdeko zein tokiko erakundeek ekintza koordinatua, elkartegintzan oinarritzen dena eta Europar Batasunaren politikak egin eta aplikatzea helburu duena. Horrek erantzukizun partekatua sortzen du tartean diren maila desberdinetako botereen artean, eta legitimotasun demokratikoaren iturri guztietan zein parte hartzen duten eragileen ordezkagarritasunean oinarritzen da”. Beste era batera esanda, Europako, estatuetako, eskualdeetako eta tokiko gobernuak eta sozietate zibileko erakundeak aintzat hartzen dituen gobernantza-eredua da. Hura antolatzeke moduak nabarmen alda daitezke herrialde batetik bestera. Egoerarik onenean, goranzko elementu bat izaten du, eta partaidetza prozesuak ezartzea dakar, hartara gobernu maila guztietako agintari publiko eskudun guztien arteko eta alderdi interesdun guztien arteko politiken baterako sorrera, kooperazioa eta koordinazioa ahalbidetuta, eskumen-esparru partekatuetan edo interes komunekin esparruetan. Eskualdeetako Batzordearen Maila Anitzeko Gobernantzari buruzko Liburu Zuria (2009).

BEREIZKERIAZKO GERTAKARIA EDO ARRAZAKERIA GERTAKARIA

Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazakeriatzat ulertzen duen edozein gertakari. Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen (ECRI) 11. politika orokorreko gomendioa.





ARRAZAKERIA

Europako Kontseiluaren ECRI erakundearen arabera, arrazakeria da “arraza”, larru kolore, hizkuntza, erlijio, nazionalitate edo jatorri nazional zein etnikoaren ondorioz pertsona baten edo pertsona talde baten mespretxua edo pertsona baten edo pertsona talde baten nagusitasuna justifikatzea. ECRIren glosarioa.

Beste alde batetik, arrazakeria terminoaren definizio juridiko unibertsalik ez dagoen arren, Arrazakeria Mota Guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioaren (CERD) 4. artikulua honako hau dio: “Estatu kideek kondenatzen dituzte propaganda oro zein erakunde guztiak, halakoek baliatzen dituztenean arraza baten edo larru kolore nahiz jatorri etniko jakin bateko pertsonen nagusitasunean oinarritutako ideia nahiz teoriak, edo halakoek justifikatu edota sustatu nahi dutenean arraza gorrotoa eta arraza bereizkeria, horien mota edozein izanik ere; eta bereizkeria hori gauzatzera bultzatzen duten egintza guztiak edo horrelako bereizkeriazko jarduerak ezaba daitezten, berehalakoak eta positiboak izango diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute”. Arrazakeria Mota Guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (CERD), (1965).

EGITURAZKO ARRAZAKERIA

Arrazakeriaren Aurkako Europar Batasunaren Ekintza Planaren (2020-2025) arabera, arrazakeriazko jokabideak eta bereizkeriazkoak erakunde sozial, finantzario eta politikoetan sustraituta egotea gerta liteke, eta horrek eragina dauka botere maila guztietan eta politiken taxuketan. Egiturazko arrazakeria arrazakeria modu bat da, “gure gizarteen historian sakonki errotuta dagoena eta gizarteen sustrai eta arau kulturekin loturak dituena. Gizarteak duen funtzionatzeko moduan, boterea banatzeko moduan eta herritarrek eta Estatuak zein zerbitzu publikoek elkarri eragiteko moduan isla daiteke. Konturatu gabea izan daiteke eta, sarritan, arrazakeriaren eraginpeko pertsonen interesak ez islatzean datza, pertsona horiek baztertzeko saiakerazuzena ez izan arren”. Berdintasunerako Batasuna: 2020-2025 aldirako Arrazakeriaren Aurkako Europar Batasunaren Ekintza Plana.

XENOFOBIA

Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen (IOM, ingelesez) glosarioaren arabera, xenofobia da “atzeritartzat jotzeagatik edo komunitate, gizarte edo identitate nazionaletik kanpokotzat jotzeagatik pertsonen arbuioa, bazterketa eta, sarritan, iraintzea dakarten jarrera, aurreiritzi eta jokabideen multzoa”. Xenofobiak atzeritarrak diren edo atzeritartzat jotzen diren pertsonenganako etsaitasuna, arbuioa edo gorrotoa dakar. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen migrazioari buruzko glosarioa. ECRIren arabera, xenofobia beste herrialde edo kultura batzuetako pertsonenganako aurreiritzia, gorrotoa edo beldurra da. 15. Gomendio Orokorra, gorroto diskurtsoaren aurkako borrokari buruzkoa, eta Azalpenezko Memoranduma (7. paragrafoa).

1.6 Europako lege esparrua.

Europar Batasunaren Kirolari buruzko Liburu Zurian (2007)¹², lehenengo aldiz jorratu ziren kirolaren inguruko gaiak modu globalean. Europako Batzordearen ustez, onura handiagoa atera dakiok kirolari Europar Batasuneko eta Batasuneko estatuetako politika, ekintza eta programetan gizarte-inklusioa sustatzeko tresna gisa.

Batzordeak azpimarratu egiten du irabazi-asmorik gabeko kirol jarduerak gizarte kohesioan eta talde zaurgarrien gizarte inklusioan laguntzen dutela, eta interes orokorreko gizarte zerbitzuetat jo daitezkeela. Halaber, kirolaren bidezko gizarte-inklusioa sustatzeko ekintzak laguntzera eta kirol eremuko bereizkeriaren aurka borrokatzera gogatzten ditu Europar Batasuneko estatuak. Kohesio-politikaren testuinguruan, Europar Batasuneko estatuak kontuan hartu beharko lukete kirolak gizarte inklusioan, integrazioan eta aukera berdintasunean duen eginkizuna.

Europako Batzordeak 2007az geroztik hartzen du kontuan kirolaren potentziala, Europar Batasuneko politika, ekintza eta programetan gizarte inklusioa sustatzeko tresna gisa eta gizarte kohesioa indartzeko tresna gisa.

Europako Kontseiluaren Kirol Dibisioak kirolaren ahalmen bateratzailea defendatzen du, eta dibertsitatearen sustapena etengabeko lehentasuna izan da Kirolari Buruzko Akordio Partzial Zabalduan (EPAS)¹³. Europako Kontseiluko estatu kideetako herritarren eskubide eta askatasunek, bereizkeriaren debekuarekin batera, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean dute jatorria, eta hori da, hain zuzen, kirolaren eremuko Europako Kontseiluaren arauzko esparruaren oinarria.

Europako Kontseiluaren 2022-2025 aldiko Kirolaren arloko lehentasunek aintzat hartzen dituzte gobernuen agendan kirol eremuko giza eskubideen babesa txertatzea eta balioetan oinarritutako kirolaren sustapenean aurrera egitea.

Bestetik, Europako Kontseiluaren *Intercultural Cities* (ICC) programak hiriek duten funtsezko eginkizunean jartzen du arreta, bizikidetzaren eta inklusioaren aldeko politikak sustatzeko orduan, dibertsitate handiagoko testuinguru batean. Urte hauetan, ICC programak eta estatuetako sareek zenbait tresna sortu dituzte eta erantzunak eskaini dituzte kulturartekotasunaren printzipioak sustatzen dituzten politikak bultzatzen jarraitzeko.

¹² <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A52007DC0391>

¹³ EPASek gobernu arteko kirol-hankidetzarako plataforma bat eskaintzen du, estatu kideetako botere publikoen arteko elkarlanerako. Era berean, botere publikoen, kirol-federazioen eta GKEen arteko elkarriketa bultzatzen du. Horrek gobernantza hobearen lortzen laguntzen du, kirola etikoagoa, inklusiboagoa eta seguruagoa izateko helburuarekin.



Gai horretan, azpimarratu behar da Espainiako eta Suediako kulturarteko hirien sareak (RECI eta Interkulturella Städer Sverige) SCORE proiektuaren barrukoak direla, Bilbo, Getafe, Sabadell eta Tenerife hiriekin batera.

Ondorioz, erakunde horiek kulturarteko ikuspegia aplikatzen dute kirol ekimenak eta politikak diseinatzean. Horretarako, kirolak honako baldintza hauek betetzen dituela ziurtatu nahi dute:

1. Benetako berdintasunerantz aurrera egiten laguntzen du, bereizkeriarik ezarekiko eta ekitatearekiko konpromisoa oinarri hartuta. Horretarako, desberdinkeria espazioak identifikatu behar dira (esaterako, atzeritarrek federatzeko dituzten zailtasunak) eta hobetzeko espazioak proposatu; kirol eremuko bereizkeriaren eta gorroto delituen aurkako borroka indartu behar da; eta tratu berdintasuna eta kirol jardunetarako sarbidea bermatu behar zaizkie herritar guztiei udal zerbitzu eta ekipamenduetan.

2. Dibertsitatea aitortzen eta errespetatzen laguntzen du. Hori lortzen da, besteak beste, kirol-jardueren dibertsitatearen aitorten instituzional eta sinbolikoarekin, bai eta udal zerbitzu, programa eta ekipamendu guztiak egokituta ere, dibertsitatea islatzeko eta kirol eskaintza zabaltzeko (kirol alternatibo edo minoritarioak sartuta), betiere espazio eta instalazioen arabera. Ildo horretatik, kirol erakundeek auzo guztietako dibertsitate soziokulturala islatu beharko lukete.

3. Elkarrekintza positiboa (baldintza berdintasunean), parte hartzea eta loturak ezartzea ahalbidetzen ditu. Horretarako, gizarte-lotura sendoak ezartzeko eta pertsona eta kolektibo jakinen autoestimua eta ahalduntzea areagotzeko baldintza egokiak sortu behar dira. Horrek identitateak eta kide izatearen sentipen partekatuek sortzen lagunduko du. Kirol-espazio eta - ekipamenduen kokalekuak ere lagundu dezake segregazio espaziala murrizten.

Beste alde batetik, **Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen (ECRI) 12. politika orokorreko gomendioak, kirolaren eremuko arrazakeria eta arraza bereizkeriaren aurkako borrokari buruzkoak**¹⁴, honako hau dio:

- Europar Batasuneko estatuek pertsona guztien aukera berdintasuna bermatu eta sustatu behar dute kirolerako sarbidean, eta arlo horretako arrazakeria eta arraza bereizkeriaren aurka borrokatu behar dute.
- Europar Batasuneko estatuek kirol-eremuko arrazakeriaren aurkako koalizioak sortu eta zuzendu behar dituzte, eta horietan parte hartzeko gonbidapena igorri behar diete tokiko agintariei, federazioei eta kirol klubei, kirolariei, entrenatzaileei, arbitroei, zaleen taldeei, gutxiengo ordezkaritza-taldeei, gizarte zibileko erakundeiei eta komunikabideei.

¹⁴ <https://www.coe.int/en/web/european-commission-against-racism-and-intolerance/>



Nazio Batuetako bederatzigarren saioari buruzko Durban Adierazpen eta Ekintza Programaren aplikazio eraginkorrari buruzko Gobernu Arteko Lantaldearen Txostenak¹⁵ hauxe azpimarratu du: *“Arrazakeriak mugitutako kirol-eremuko ekintzen zigorgabetasuna jorratu eta borrokatzearen garrantzia, horren barne direla arrazakeria, arraza bereizkeria, xenofobia eta antzeko intolerantzia, etsaitasun edo indarkeria moduak bultzatzeko ekintzak, eta Estatuei deialdia egiten die neurri egokiak har ditzaten, legeria nazionalaren eta nazioarteko betebeharren arabera, kirol-ekitaldien testuinguruko arrazakeria, arraza bereizkeria, xenofobia eta antzeko intolerantzia moduen adierazpen guztiak prebenitu, borrokatu eta horiei aurre egiteko, eta arrazakeriak mugitutako delituak legez zigortzekoak izan daitezen ziurta dezaten, bidezkoa denean”.*

Lantaldeak **berdintasuna eta dibertsitatea sustatzeko tresna moduan kirolak duen potentziala** aipatu du, eta Estatu eta alderdi interesdunak, batez ere, kirol-elkar-te eta batzordeak, berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatzera animatzen ditu, arrazakeria, arraza bereizkeria, xenofobia eta antzeko intolerantzia moduen aurka borrokatuz, kirol instalazio eta zerbitzuetarako sarbide eta erabilerari dagokienez, eta enplegu aukera eta garapen profesionalari dagokienez ere.

Europar Batasunaren Arrazakeriaren aurkako 2020-2025 ekintza planaren¹⁶ arabera, etorkizunean, ERASMUS+ motako programek gizarte inklusioa sustatzeko eta aukera gutxien dituzten pertsonengana gehiago hurbiltzeko ahaleginak bermatuko dituzte, besteak beste, ordezkari txikiak duten talde eta gutxiengoek programen aukerei onura ateratzeko aurkitzen dituzten oztopoak jorrotuz eta proiektuen antolatzaileei zein parte hartzaileei trebakuntza egokia emanaz, hainbat jatorritako pertsonekin aritzean zentzuz joka dezaten. Estrategia horrek aintzat hartuko ditu hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren arloetako eremu guztiak, eta etorkizuneko Erasmus+ eta Elkartasunaren Europako Kidegoaren programen iraunaldi osoan zehar garatuko da.

Hiriek funtsezko eginkizuna dute dokumentu horietan guztietan. Esaterako, **Europar Batasunaren kirolerako lan egitasmoak (2021-2024)**¹⁷ arreta berezia jartzen du kirolaren eremuko gobernantza onaren garapen eta sustapenean. **Kirolaren Europako Gutunak (2021)**¹⁸ orientazioa eskaintzen die dibertsitatea sustatzen duten eta bereizkeriari aurre egiten dioten kirol programak garatu nahi dituzten tokiko agintariei.

¹⁵ <https://www.ohchr.org/es/documents/thematic-reports/ahrc4989-report-intergovernmental-working-group-effective-implementation>

¹⁶ https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/policies/justice-and-fundamental-rights/combating-discrimination/racism-and-xenophobia/eu-anti-racism-action-plan-2020-2025_en

¹⁷ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A42020Y1204%2801%29>

¹⁸ <http://femp.femp.es/files/566-69-archivo/CARTA%20EUROPEA%20DEL%20DEPORTE.pdf>



Horrela, Europar Batasuneko zenbait estatutan, kirolaren eta gizarte kohesioaren inguruko politika nazionalak garatu dira eta tokiko agintariei esleitu diete eginkizun nagusia. Adibidez, besteak beste, Irlandan, 2018-2027 Kirolaren Politika Nazionala¹⁹, eta Espainian, Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Herritartasun eta Inklusioaren Esparru Estrategikoa (2023-2027)²⁰.

Oinarrizko Eskuliburu honen hurrengo ataletan, gidalero praktikoak eskainiko dira, arrazakeria eta arraza bereizkeriaren aurka borrokatzeko tokiko kirol politikak garatzeko eta gizarte kohesioa sustatzeko.

Zenbait hiri aitzindarik, hala nola Kopenhagek (Danimarka)²¹ edo Bilbok (Espainia)²², **tokiko kirol-politikak abian jarri dituzte** gutxiengo etnikoak eta arrazak gizarteratzeko tresna gisa.

**“KIROLAK TOKIRIK
GARRANTZITSUENA HARTU
BEHAR DU AGENDA POLITIKO
ETA SOZIALEAN”
(SEBASTIAN COE)**

1.7 Hirirako abantailak.

Tokiko erakundeek kirola sustatzeak hainbat abantaila dakartza. Abantaila horiek tokiko gizarte-kohesioa kirolaren bidez lantzeko aukera ematen duten alderdi eta mailekin dute zerikusia. Jarraian ageri den taulan ikus daitezke abantaila horietako batzuk, Eskuliburuaren 1.5.1 atalean adierazitako maila eta alderdietan banatuta.

¹⁹ <https://www.sportireland.ie/sites/default/files/media/document/2023-05/Sport%20Ireland%20Policy%20on%20Diversity%20and%20Inclusion%20in%20Sport%20%281%29.pdf>

²⁰ https://www.inclusion.gob.es/oberaxe/es/publicaciones/documentos/documento_0158.htm


²¹ <https://danskracismeforskning.dk/2023/12/04/chatzopoulos-ioannis-sport-migration-and-integration-in-denmark-local-political-responses-and-policies-in-copenhagen-2022/>

²² <https://bilbaokirolak.eus/eu/komunikazioa/albisteak/bilboko-udalak-kirolaren-estrategia-20212024-aurkez-tu-du-4-ardatz-11-helburu-eta-61-ekintza-zehatzekin/noticia>



1.7.1 Banakoentzat.

Kide izatearen sentipena



Kirolak ez ditu gizartearen arazoak konpontzen, baina horien aurrean eusten eta bazterketa-prozesuak alderantzikatzen laguntzen du²³. Kirolak, bere kabuz, ez ditu banakoen gizarte-arazoak aldatzen, pertsona horrek familiarekin, hezkuntzarekin, adikzioekin eta abarrekin lotutako zailtasunak dituenean, baina egoera horiei hobe eusten lagundu dezake, deskonpresio-ihesbidearen eginkizuna betetzen baitu. Era berean, pertsona bakoitzak dituen arazoak eta testuinguru sozial jakin batean duen egoera desberdinak izaten dira eta, ondorioz, kirola behar pertsonaletara egokitu behar da, ezin da orokorrean erabili.

Bizikidetzatza



Hirian eta hirietako komunitateetan, kirola plataforma paregabea da elkarrizketaren eta ulermenaren balioak sustatzeko, pertsonen arteko konfiantza²⁴ areagotzeko, dibertsitatea onartzeko eta genero berdintasuna²⁵ bermatzeko.

Guztion ongizatea



Kirol jardueretan eta ariketa fisikoetan erregularitasunez parte hartzeak hainbat **onura sozial eta osasunerako onura**²⁶ dakartza. Kirolak bizi estilo osasuntsuak sustatzen ditu eta garapen kognitibo positiboa suspertzen du, eta hori onuragarria da osasun fisiko eta mentalerako eta komunitatearen kapital soziala hobetzeko.

²³ Gaspar Maza Gutiérrez, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=196554>

²⁴ Beatriz Mejía Restrepo, [El deporte, la confianza y el desarrollo sostenible, Comité Olímpico Colombiano](https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2017/04/unesco-el-deporte-es-un-motor-para-el-desarrollo-y-la-igualdad/)

²⁵ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2017/04/unesco-el-deporte-es-un-motor-para-el-desarrollo-y-la-igualdad/>

²⁶ <https://iris.who.int/bitstream/handle/10665/363592/9789240060548-spa.pdf>



1.7.2 Komunitatearentzat.

Kide izatearen sentipena



Kirola **hezkuntza-tresna eta gizarte-inklusio eta integrazioarako plataforma** ahaltsua da²⁷. Kirolak identitateak eraikitzen ditu eta **kide izatearen sentipena** areagotzen du, hartara tokiko, nazioko, nazioarteko, lurraldeko kolektibitateak edo kolektibitate birtualak osatuz edo finkatuz. Kirolak oinarrizko eta funtsezko gaiak jorratzen ditu: nor garen eta nor izan beharko genukeen, zeren kide garen eta zein aukera ditugun gure inguruneari dagokionez. Kirolaren berezko balioak **identitatearekin eta kide sentitzearekin** du zerikusia, eta oinarrizko arau eta balio sozial eta kulturekin batera ulertu behar da²⁸. Gainera, **herritarren partaidetza antolatua sustatzen du**, bizikidetzari eta gizarte-kohesioari ekarpen eta laguntza nabarmenak eskaintzen dizkieten formulazio instituzional propio eta subiranoak erabiliz.

Bizikidetzara



Kirolak **tolerantzia eta errespetua** sustatzen ditu, emakume, gazte, pertsona eta komunitateak ahalduz gain, eta osasun, hezkuntza eta gizarte-inklusioa helburuak lortzen laguntzen du²⁹.

Guztionez ongizatea



Jarduera fisikoak eta kirolak **hiri seguruago, inklusiboago eta jasangarriagoak** sortzen dituzte³⁰. Auzo zaugarrietan kirol-azpiegiturak eraiki eta hobetzeak berdintasun handiagoa ekartzen du hirietan. Kirola funtsezko espazioa da hirietako ekitate ezaren adierazpenei aurre egiteko, kirol-esparruak zabaldu eta espazio publikoak aisialdi eta jardueren fisiko lantzeko sistemaz erabiltzen baitira.



²⁷ <https://www.segib.org/wp-content/uploads/SEGIB-Deportes-Librillo-2-WEB.pdf>

²⁸ Dowling, F., *Sport's 'gateway for inclusion' on the latch for ethnic minorities? A discourse analysis of sport policy for inclusion and integration*

²⁹ <https://www.un.org/es/chronicle/article/el-papel-del-deporte-en-la-consecucion-de-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible>

³⁰ https://www.df.cl/noticias/site/docs/20240419/20240419175013/suplemento_20240421.pdf


1.7.3 Egituran

Kide izatearen sentipena



Zenbait azterlanek³¹ egiaztatu dutenez, kulturarteko gizarteratze-politikak martxan jartzen dituzten hiri-ek emaitza hobekak lortzen dituzte beren herritarren kohesioari buruzko pertzepzioari dagokionez, bai eta administrazioarekiko konfiantza handiagoa, segurtasuna, zerbitzuen kalitatea, ongizatea, gobernantza ona eta hazkunde ekonomikoa ere.

Bizikidetzeta



Osasun fisikoa hobetzeko berehalako onurekin batera, kirola bizikidetzarako eta gizarte-kohesiorako bitartekoa izan daiteke. Kirolak lotura sozial sendoagoak ezartzen eta belaunaldi gazteen autoestimua areagotzen laguntzen duela esan izan da.³² Kirol-partaidetza eta jarduera fisikoaren hein handiagoek ongizate orokorra hobetzen dute eta gizarte-harremanak sendotzeko bideak dira.

Guztion ongizatea

Kirolak, **garapen jasangarriaren erraztaile**³³ den heinean, ezinbesteko lotura dauka 2030 Agendarekin eta bere 17 GJHeekin, zehazki, honako hauekin:



³¹ <https://www.coe.int/en/web/interculturalcities>

³² Herritarrak batzeko eta justizia soziala bultzatzeko kirolaren ahalmena. <https://www.weforum.org/agenda/2021/01/uniting-the-world-through-sport-what-can-we-learn-from-sport-in-enabling-social-cohesion/>

³³ <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2020/05/guia-ods-deporte.pdf>



2. ARRAZAKERIAREN AURKAKO BORROKA KIROLAREN BIDEZ

Kirola da gure auzoetako askotan ezkutuan aritzen den gizarte-langilea (Sebastian Coe³⁴)

Atal honetan, laburki azalduko da zergatik den kirola gure gizarteetako ardatza eta **zergatik** den hain garrantzitsua, toki erakundeentzat³⁵ eta bertako arduradunentzat, hirietako kirol jarduerak **non** egiten diren jakitea, **zein** kirol jarduera gauzatzen diren, nork eta noiz egiten dituzten, zein momentutan, eta zein diren pertsona horien **behar eta eskakizunak**. Azkenik, udalerriek hainbat neurri dituen estrategia bat nola artikulatu behar duten adieraziko da, toki erakundeetatik, kirolaren bidez, arrazakeriaren aurka borrokatzeko.

“EUROPAN IA BI PERTSONETAKO BATEK (% 44) USTE DU BERE UDALAK EZ DUELA BEHAR ADINA EGITEN HERRITARREN ALDE JARDUERA FISIKOEI DAGOKIENEZ”.
(525 EUROBAROMETROA “KIROLA ETA JARDUERA FISIKOA” 2022)

2.1 Tokian tokiko beharren ebaluazioa.

Edozein esku hartzerako abiapuntua **errealitatea ezagutzea** da. Udalerrian, gizarte-kohesioa ahalbidetzen duten eta edozein arrazakeria-gertakari edo jatorri etnikoan zein arrazan oinarritutako bereizkeriari aurre egiteko aukera ematen duten neurri eraginkorrak hartzeko, lehenik, gorago agertzen diren auzien inguruko alderdi guztiak identifikatu behar dira: **udalerrietako kirol jardueren non, zer, nork eta noiz** galderak, alegia.

Atal honetan, laburki azalduko da nola **ebalatu daitezkeen beharrak tokiko esparruan, eskala horretako kirol-jardueraren kokalekuari, erabilerari, jardunbideei, sarbideari eta mantentzeari** dagokienez. Azken batean, beharren diagnostikoa/ebaluazioa egiten jakitea da helburua, identifikatu diren hiru maileri erantzuna emateko: egiturazkoa, komunitatea eta banakoa.

³⁴ Sebastian Coe, <https://www.britannica.com/biography/Sebastian-Coe>

³⁵ Oinarritzko Eskuliburu hau toki erakundeei zuzendutakoa da gehienbat, baina hausnarketak, gomendioak, adibideak eta iradokizunak erraz eraman daitezke kirol klubetara, federazioetara, elkarteetara, ikastetxeetara, etab.



2.1.1 Egiturazko maila.

Udalerriek askotariko kirol instalazioak dituzte, esaterako, kirol jarduera fisikorako instalazioak eta espazio publiko irekiak. Horiek guztiak espazio publikoak dira (udalak finantzatutakoak edo beste administrazio publiko edo ekimen pribatu baten laguntzarekin finantzatutakoak) eta sarbidea udal arauen bidez erregulatzen da: batzuek, baimenen bat eskatzen dute eta, zenbaitetan, kuota bat edo espazioaren alokairua ordaindu behar dira; beste batzuk, aldiz, sarrera librekoak dira, batez ere aire zabaleko espazioen eta espazio publiko irekien kasuan. Jarraian ageri den taulan ikus daitezke tokiko kirol-instalazio moten zenbait adibide:

KIROL JARDUERA FISIKORAKO INSTALAZIOAK	ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK	
 ESTALIAK <ul style="list-style-type: none">• Kiroldegia• Igerilekua• Muskulazio aretoa• Gimnasioa• Squash/paddle/badminton pista• Beste batzuk	 AIRE ZABALEKOAK <ul style="list-style-type: none">• Futbol-zelaia• Kirol-jokaleku irekiak• Kirol anitzeko pista• Aire zabaleko igerilekua• Tenis/paddle pista• Pilotalekua• Beste batzuk	 ARIKETA PARKEAK <ul style="list-style-type: none">• Pumptruck• Parkeetako ping pong mahaiak• Erabilera anitzeko esparru asfaltatuak (adib. patinajea, skate)• Beste batzuk

Espazio “formal” horiez gain, erabiltzen diren eta herritarren kirol-jardueraren egiazko beharretara egokituta dauden gainerako kirol-espazioak ere ezagutu behar dira. Sarritan, **aire zabaleko espazio informal** horiek (belardiak, zuhaitziak, hondartzak, etab.) **kirol jakin bat egiteko** erabiltzen dira, udalerrian ez dagoelako kirol horretarako eskaintza formalik (adib. **beisbola, kriketa, ekuaboleia**³⁶, etab.), hori egiteko espazio formal baterako sarbiderik ez dutelako (korrika, futbola, kirol tradizionala, etab.) edo **sarbide-oztoporen bat** (ekonomikoa, administratiboa, etab.) dagoelako, aurrerago zehaztuko den moduan.

³⁶<https://www.lifeder.com/ecuavoley/>





TOKIAN TOKIKO KIROL-ESPARRUAN, ARRAZAKERIAREN
ETA ARRAZA BEREIZKERIAREN AURKA BARRONKATZEKO
DINARRIZKO ESKULIBURUA



Azken batean, espazio informalak erabiltzeko arrazoia edozein izanda ere, udal arduradunek espazio eta jarduera horiek ezagutu behar dituzte, kiroltako udal espazioak herritarrek egiten dituzten kirol-jardueretara egokitzeko aukera aztertzeko. Kirol-eskumenak dituen sailak zeharkako ikuspegia izan behar du, giza eskubideekin, gizarte inklusioarekin edo udalerriko etnia- eta arraza-gutxiengoei lotutako beste alderdi batzuen gaineko eskumenak dituzten udal sailekin partekatuta.

Toki-administrazioek loturak ezarri behar dituzte udalerriko etnia- eta arraza-gizataldeekin, horien kirol-jarduerak, eskakizunak eta balizko oztopoak ezagutzeko.

2.1.2 Komunitatea.

Udal kudeaketaz gain, kirol-jardueren zeharkako ikuspegia baliatuz, beste faktore garrantzitsu batzuk ere hartu behar dira kontuan, esaterako, kirol-klubak eta federazioak. **Europako kirol-esparruaren ezaugarri bereizgarrietako bat kirol-kluben eta federazio globalen sarearekiko mendekotasun handia da**³⁷. Europan dugu kirol-kluben testuinguruan egiten diren kirol-jardueren ehuneko zenbatetsi handiena (% 23) eta kirol-klubetako kide diren herritarren ehuneko handiena (% 27).

Tokiko kirol-jardueretako espazio ez-formalak diren modu berean, formalki eratu diren kirol-klubak eta formalki eratu ez diren kirol-klubak (edo elkarteak) ere badira. Adibidez, **aldian behin kirol-topaketak antolatzen dituzten** (normalean espazio formal irekietan edo espazio informaletan) **eta formalki eratu ez diren pertsonen elkarteak edo taldeak.**



³⁷ Bottenburg, M. V., Rijnen, B., & Sterkenburg, J. (2005). Sports participation in the European Union: Trends and differences. Nieuwegein: Arko Sports Media.

Kiroletarako sarbidea, ustez, unibertsala den arren, kiroltako parte hartzea, oraindik ere, etnikoki geruzaturik ageri da. Azterlan ugari³⁸ frogatu dute kirol-esparruko parte-hartzean etengabe gertatzen direla desberdintasun etnikoak. Oro har, gutxiengo etnikoek kiroltako parte hartzeko joera txikiagoa dute, gehiengo homologoekin alderatuta, eta klubek antolatutako kiroltako parte hartzeko aukera gutxiago dituzte. Arrakala horren ondorioz, kirolek duten jatorri etniko aniztaketako pertsonak biltzeko potentziala murriztu egiten da.

Kirol-klubetako kideak edo kirol-jardueretako partaidetzari lotutako datuak ez dira arrazaren edo jatorri etnikoaren arabera banakutzen; beraz, ezin da errealitatea ongi ezagutu eta ezin dira hirietako testuinguruetara egokitutako politikak garatu. Ikuspegi intersektionala duten datuak behar dira.

Horrez gain, **ikuspegi intersektionala duen analisia** egin behar da emakume eta gizonen kirol-jardueretan duten parte-hartze desberdina ezagutzeko. Kirolaren ekosisteman, emakumeek ordezkari txikiak izan dute eta oraindik ere badute, maila guztietan, gizonekin alderatuta³⁹, eta ezinbestekoa da datu gurutzatuen analisia egitea ere etnia- eta arraza-gutxiengoetako emakumeen kasuan, ikuspegi intersektional batez.

“Kirola guztiontzat”⁴⁰ leloa errealitate bihurtzeko, **tokiko agintariak** udalerria osatzen duten pertsona guztien **behar eta eskakizunen dibertsitatea eta aniztasuna jaso behar dituzte**, eta udalerrietako kirol eta jarduera fisikoaren eskaintza pertsona guztiei egokitu behar diete. Modu horretan, parte hartu nahi duten pertsona guztiek parte hartzeko aukera izango dute, edo euren jarduera fisikoa egiteko aukera, berdintasun-baldintzetan.

Bertoko biztanleriak partaidetza-tasa handia du kirol-klubetan; **atzeritarrek, ordea, ordezkari txikiak izan ohi dute kirol-klub formalean**⁴¹. Esaterako, Alemanian, kirol-klubetako kide guztien % 10,1 (2,8 milioi) dira bakarrik, eta Irlandan, Jarduera Fisikoaren Gidalerro Nazionalak bete eta oso aktibotzat sailkatu zirenen artean, gehienak irlandar zuriak izan ziren (% 42), beste jatorri batzuetako zuriak atzetik (% 35) eta beltz, asiarrak edo beste jatorri batzuetakoak azkenik (% 32). Horrez gain,

³⁸ Zenbaiten artean, Vogels (2014), Wijtzes, Al, Jansen, W., Bouthoorn, SH, Pot, N., Hofman, A., Jaddoe, VVW eta Raat, H. (2014).

³⁹ Eime, R. y VVAA., Gender inclusive sporting environments: the proportion of women in non-player roles over recent years.

⁴⁰ Dowling, F. Sport's 'gateway for inclusion' on the latch for ethnic minorities? A discourse analysis of sport policy for inclusion and integration

⁴¹ Irish sports monitor annual report 2022, Programa IdS.



aipatu behar da **Europar Batasuneko estatu gehienetan ez dagoela daturik** jatorri etniko edo arrazaren arabera klubetan afiliatzeko eta parte hartzeari buruz. Kirol antolatuetako partaidetza-tasan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat **arrazakeria eta bereizkeriarekiko esposizioa**⁴² da, eta kirol-lehiaketetan argi eta garbi arrazistak diren irainak jasateko arriskua⁴³.

2.1.3 Banakakoa.

Etnia- eta arraza-taldeen udalerriko kirol-jardueretan aurkitzen dituzten **oztopoak zein diren** jakin behar dute toki-erakundeek. Kirol-erakunde eta -elkarteak ez daude **ezberdintasunez, oztopoz, desberdinkeriaz eta gatazkez**⁴⁴ betetako mundu sozial baztertzaitetik deskonektatuta.

Arduradun politikoek uste edo espero dutena baino askoz neutraltasun eta ekitate gutxiago dauka kirol-esparruak.







⁴² Evans, Adam B. Sport, race and ethnicity in the wake of black lives matter: introduction to the special issue.

⁴³ P. Rocu "¿Es discriminado el alumnado africano y afrodescendiente en el ámbito deportivo escolar? Análisis y decálogo antirracista"

⁴⁴ Zenbaiten artean, Arend F. van Haften (2019), Coakley (2009), Collins (2014); Giulianotti (2016), Jarvie (1991).



Batik bat, **lau oztopo mota identifikatu dira etnia- edo arraza-gutxiengoetako kide diren pertsonen tokiko kirolean parte hartzeko:**

			
<p style="text-align: center;">1</p>	<p style="text-align: center;">2</p>	<p style="text-align: center;">3</p>	<p style="text-align: center;">4</p>
<p>Oztopo administratiboak</p>	<p>Oztopoak baliabide sozioekonomikoetan</p>	<p>Aurreiritzi etniko eta bereizkeriazkoak</p>	<p>Ezberdintasunak lehentasun eta gustuetan</p>
<p>Egoera administratibo erregularra ez duten pertsonak, sarritan, udalerrietako kirol jardun "formaletik" kanpo gelditzen dira. "Administratiboki" galarazten zaie federazio-lizentzia bat izatea, klub bateko kide izatea, kirol-instalazioetara sartzeko txartela lortzea, etab.</p>	<p>Jarduera gehienekin gertatzen den moduan, kirolean parte hartzeko nolabaiteko baliabide ekonomikoak behar dira, kuotak, lizentziak, kirol- materiala eta abar ordaintzeko. Etnia- edo arraza-gutxiengoetako pertsonen zaugarritasun-kasuak traba izan daitezke kirol-esparruan aritzeko. Era berean, auzo zaugarrietasun kirol-espaziorik ez badago, kirola egiteko beste auzo batzuetako kirol azpiegiturretara joatea beste erremediorik ez dago. Gainera, bestelako aldagaiak ere hartu behar dira kontuan, besteak beste, ordutegien eskaintza, etnia- edo arraza-gutxiengoetako pertsonen beharretara egokitu ahal izateko.</p>	<p>Kirol-espazioak ez daude aurreiritzi etnikoetatik eta bereizkeriatik libre. Disusioko elementuen edo zuzenean bereizkeriazko jardunbideen ondorioz, etnia- edo arraza-gutxiengoetako pertsonen tokiko kirolean parte hartzea mugatu edo galarazi dezakete.</p>	<p>Talde etniko guztiek ez dute interes bera izaten kirolean, orokorrean, edo kirol jakinetan parte hartzeko. Talde etnikoek sozializazio eta balio kultural desberdinak izan ditzakete, eta gustu eta jokabide desberdinak ere hartu eta agertu ditzakete. Ondorioz, kirol partaidetzako ezberdintasun etnikoak lehentasun desberdin horien emaitza izan daitezke. Horrez gain, zenbait talde etnikok kirol jakinetan duten arrakasta atletikoak "estereotipo positiboak"⁴⁵ sorraraz ditzake. Horrek esan nahi du, zeharka hirugarren baten bidez (entrenatzaileak, monitoreak, etab.) edo euren kabuz (autoestereotipoa), jatorri etnikoa kirol jakinetan nabarmentzeko gaitasunarekin lotzea. Prozesu hori bereziki ahaltsua izan daiteke gutxiengoen talde etnikoetan; izan ere, autoestereotipo horiek harrotasun modu gisa funtzionatu dezakete, normalean gutxiengoen taldeekin gehiengoaren taldearekin okerrerako alderaketa izaten duten testuinguru batean.</p>

⁴⁵ Harrison, L. (2001). Understanding the influence of stereotypes: Implications for the African American in sport and physical activity. *Quest*, 53, 97–114.



Futbola ez dago aisialdiko kirol gisa hain zabaldua eta hain garatua munduko toki guztietan; litekeena da talde etnikoak nabarmen aldatzea familiako kideen esperientziak aprobetxatu eta haiekin sozializatzeko aukera duten neurrian.

(Arend F. van Haften)



Tokiko kirola herritarren beharretara egokitu behar da, malgua izan behar da eta ez ditu errepikatu behar tokiko kirolean parte-hartzea galarazten duten egitura eta araudien zorrotasunak. Tokiko agintariek zeharkako planteamendu interseksional eta dekoloniala hartu behar dute, tokiko kirola elkartzeko espazioa eta arrazakeriari eta arraza-bereizkeriari aurre egiteko tresna izan dadin.



2.2 Kirolaren bidez, tokiko eremuan arrazakeriaren aurka borrokatzeko dekalogoia.

Jarraian proposatu dira kirolaren bidez tokiko eremuan arrazakeriaren aurka borrokatzeko udalerriei zuzendutako hamar oinarrizko ekintza.		
1		Udalerriko kirol- eta gizarte-egoera ezagutzea protagonisten eskutik: zer, nola, non, noiz, nork, etab.
2		Aztertzea: Tokiko informazio-eta estatistika-iturriak garatzea, plangintza, erabakiak hartzeko prozesua eta emaitzen analisia hobetzeko.
3		Elkarrizketa, solasaldi eta partaidetzarako espazioak sortzea: Kirolaren bidez identitatea eraiki eta udalerriko kide izatearen sentipena sustatzeko.
4		Tokiko kirol-esparruan arrazakeriaren eta arraza-bereizkeriaren aurka borrokatzeko araudia garatzea.
5		Sentsibilizazio-eta komunikazio-kanpainak: Udalerrian arrazakeria onartzen ez dela islatzen duen batera sortutako irudi erkidea garatzea.
6		Zeharkakotasuna: Zenbait sail (kirola, hezkuntza, berdintasuna, gizarte zerbitzuak, gazteria, etab.) aintzat hartzen dituen sail arteko ikuspuntu batetik lan egitea.
7		Intersekzionalitatea: Ikuspegi hori ekintza guztietan aplikatzea eta, hala, etnia, genero, erlijio, sexu orientazio, adin, gaitasun desberdin eta bestelako aldagaiak uztartzea.
8		Gaitasunak indartzea: adierazitako beharrak abiapuntu hartuta, gaikuntza-ekintzak egitea arduradun politikoentzat, klub eta federazioentzat, entrenatzaileentzat eta abarrentzat.
9		Ekintza guztien kirol- eta gizarte-inpaktua ebaluatzea: inpaktua eta emaitzak aldian behin ebaluatzea.
10		Informazioaren gardentasuna eta gizarte-zabalkundea: emaitza guztiak herritarrei azaltzea, herritarren iritzia kontsulta publikoen bidez jasotzea eta proposamenak modu aktiboan txertatzea.



3. KIROL ESPARRUKO ARRAZAKERIAREN AURKAKO BORROKA

Arrazakeriaz hitz egin behar dugu. Eta zerbait egin behar dugu. Beti dago norabidea aldatzeko aukera, borondatea izanez gero. (Europar Batasunaren Arrazakeriaren Aurkako Plana 2020-2025)

Atal honetan, kirol-jardueran jarri dugu arreta, esku hartzeko biardatzetatik:

- a. Tokiko kirolean arrazakeria-gertakariak prebenitzea.
- b. Tokiko kirol-jardueretan, arrazakeria-gertakariak antzematea eta horien aurka jardutea.

Score proiektuak esku hartzeko bi ardatz horiek proposatzen ditu **tokiko eremuan garatzen diren kirolak eta jarduera fisikoak komunitatea osatzen duten pertsona eta kolektibo guztientzat seguruak izan daitezen.**

Pertsona eta kirolari guztientzat seguruak den tokiko kirolaren kontzeptuak esan nahi du testuinguru osasuntsu eta solidarioa den ingurune batean entrenatu eta lehiatzeko aukera eskaini behar dela; ingurune begirunetsua, ekitatiboa eta inolako jazarpen edo abusurik gabekoa⁴⁶.

Pertsonen arteko indarkeria, abusua eta jazarpena, kirolarien osasun fisiko, emozional eta mentalerako kaltegarriak izateaz gain, kirolaren oinarri etiko eta sozialerako mehatxuak ere badira. Mota horietako egintzak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren kontrakoak dira, baita Nazioarteko Olinpiar Batzordearen adierazpen politiko eta posizionamenduen kontrakoak ere⁴⁷. Era berean, Kirolaren Europako Gutunak 1.b artikuluan aipatzen du "pertsona guztiek kirola ingurune seguru eta osasuntsu batean egiteko aukera izan dezatela"⁴⁸.

Aitortu behar dugu, toki askotan, kirola eta jarduera fisikoa ez direla espazio seguruak gure komunitateetako gutxinegoen talde etniko edo arraza-taldeko pertsonentzat. Esaterako, Arrazakeria eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak⁴⁹ duela gutxi egin-dako azterlan batek azaleratu duenez, kirola egiten duten afrikar jatorriko gazteek

⁴⁶ <https://olympics.com/athlete365/es/deporte-seguro/>

⁴⁷ <https://www.safesportinternational.com/international-standards/#ISSP>

⁴⁸ https://search.coe.int/cm/pages/result_details.aspx?ObjectId=0900001680a420e8

⁴⁹ [Es discriminado el alumnado africano y afrodescendiente en el ámbito deportivo escolar? Análisis y decálogo antirracista.](#)



arrazakeriazko adierazpenenak pairatzen dituzte sarritan. Horrek kirola eta jarduera fisikoa garapen pertsonalerako espazio seguru izateko helburutik aldentzen gaitu eta pertsona horietako askok kirola egiteari uztea eragiten du.

Ondorioz, tokiko kirola eta kirol-jarduera pertsona guztientzako espazio seguru bihurtzeko beharra abiapuntu hartuta, bai kirola egiten dutenentzat, baita haiekin doazenentzat ere, Eskuliburuak zenbait gomendio eta iradokizun praktikoko proposatzen dizkie toki-erakundeei.

Safe Sport International⁵⁰ erakundearen kirol seguruaren printzipioak erreferentzia egokia izan daitezke ikuspuntu horretatik jarduteko, kontuan hartuta printzipio horiek kirola egiten duten heldu zein adingabeei egokitu behar zaizkiela: kasu honetan, neurriak zorrotzagoak izan behar dira adingabeen babesik edo segurtasunik ezaren aurrean⁵¹.

Atal honek arreta handiagoa jarri du egiturazko alderdian / gizarte-kohesiorako politikan, baina zeharkako ikuspegian eta ikuspegi intersektzionalean ere jorratzen da gizarte-kohesioa beste alderdi batzuetatik lantzeko modua.

3.1 Arrazakeria-gertakariak tokiko eremuan prebenitzea.

Prebentzioaren kontzeptua izugarri zabala da. Eskuliburuaren ondorioetarako, prebentzioa da tokiko kirol-esparruan gertakari arrazistak saihesteko garatu diren neurrien multzoa. Beraz, gertakari arrazistei aurrea hartzea da helburua.




⁵⁰ <https://www.safesportinternational.com/international-standards/#ISSP>

⁵¹ [Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko Espainiako Gobernuaren Lege Organikoak](#) kasu honetarako oso garrantzitsua den figura berritzaile bat sortu du: kirol jardueretarako haurren babes ordezkeriak (48.c artikulua).

Horrela, tokiko kirol-esparruko arrazakeriazko gertakariak prebenitzeko beheko taulan sistematizatu diren bi estrategia-motak behar dira, jarduteko zenbait gomendioarekin⁵² batera:

SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA



KIROL EREMUAN
ARRAZAKERIAREN ETA
ARRAZA BEREIZKERIAREN
AURKA BORROKATZEKO
UDAL KONPROMISOA
KOMUNITATE GUZTIAK
EZAGUTZEN DUELA
ZIURTATZEA.

Kirolaren bidez, tokiko eremuan arrazakeriaren aurka borrokatzeko dekalogoaren 4. puntuan arrazakeriari eta arraza-bereizkeriari aurre egiteko tokiko araudiaren garapena aipatu da.

Gomendio hori modu zabalean ulertuta, araudi zehatza edo tokiko estrategia gara daiteke ekintza plan espezifiko baten bidez.

Jarduketa horiek dagoeneko badiren udal plan eta/edo estrategietan txertatu daitezke, bai kirolaren arlokoak (kirolerako udal plana edo estrategia) edo bai giza eskubideen eta dibertsitatearen arlokoak.

Oso komenigarria litzateke araudi edo plan horiek kontsulta, elkarrizketa eta komunitate osoaren partaidetza bidez erabakitzea, batez ere, arrazakeriaren eta arraza-bereizkeriaren eta/edo bereizkeria etnikoaren aurrean kalteberagoak diren talde eta kolektiboekin batera, dekalogoaren 3. puntuan adierazitako moduan.

Udal konpromisoa hainbat eratan zabaldu daiteke:


- a.** Udalerrian komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat garatzea (dekalogoaren 5. puntua).
- b.** Udal konpromisoaren irudi erkidea diseinatzea herritarrekin partekatutako balioak sortzeko.
- c.** Udal konpromisoaren printzipio eta balioak partekatzen dituzten kirol-kluben, gizarte-elkarteen eta herritarren atxikipenak. Atxikipen horiek azpimarratzeko bereizgarri espezifikoak sortu daitezke, balio erkideak, gizarte-bizikidetzak eta ongizate komunerako orientazioa lortzeko udal konpromisoarekin bat egin duten klub eta erakundeak identifikatzeko.
- d.** Sentsibilizazio-jarduerak komunitateko funtsezko gizarte eragileekin, hala nola ikastetxeak, osasun arloa, hurbileko polizia eta abar.

Sentsibilizazio-ekintza horiek araudi edo plan espezifikoetan islatu ez den udal konpromiso argirik gabe ere egin daitezke. Hala ere, gizarte-kohesioa nabarmen sendotuko litzateke toki-erakundearen lidergoarekin eskutik eta kontsulta, elkarrizketa eta partaidetza prozesu batean funtsaturik.



⁵² Jarduteko gomendio horiek toki erakundearen testuinguru zehatzera egokitu daitezkeen orientazio moduan ulertu behar dira.

PRESTAKUNTZA



TOKIKO KIROL ERAGILEEN EZAGUERA ETA GAITASUNAK AREAGOTZEA

Dekalogoaren 8. atalean, udal kirolaren esparruko eragileen ezaguera eta gaitasunak areagotzea aurreikusita dago, arrazakeriari eta arrazabereizkeriari dagokienez.

Tokiko kirol-jardueretan, hainbat eragilek parte hartzen dute: arduradun politikoak, udal kirol instalazioetako teknikari eta langileak, udalaren kirol-eskolak, udalarekin akordioak dituzten klubak (esaterako, espazioak lagatzeko), kirolariak eta haiekin batera doazen pertsonak (senideak edo lagunak).

Hemen udalerriko espazioetan jarduera formal edo ez formalak antolatzen dituzten elkarteak ere sartu behar dira, aurreko kapituluetan azaldu dugun moduan.

Udalaren aldetik, kirol eragile horien guztien ezaguera eta gaitasunak sendotu behar dira, tokiko kirolaren esparruko arrazakeriari eta arrazabereizkeriari dagokienez. Honela egin daiteke hori:

- a.** Arduradun politiko, teknikari eta udalaren kirol-instalazioetako langileentzako derrigorrezko prestakuntza bat antolatuz.
- b.** Arrazakeriaren inguruko kontzientziazioa udalak antolatzen dituen kirolari buruzko prestakuntza-jardueretan txertatuz.
- c.** Udalaren kirol-eskolen eta udalarekin akordioak dituzten klubengaitasunak hobetuz, bertako arduradunei zuzendutako prestakuntza espezifikokoaren bidez⁵³.
- d.** Informazio-espazio bat herritar guztien eskura jarritz, tokiko kirolaren esparruko arrazakeria eta arrazabereizkeriari buruzko materialekin, udalaren webgunean.

3.2 Tokiko kirol jardueretan arrazakeria-gertakariak antzematea eta horien aurka jardutea.

Kontuan hartu behar da, prebentzio ahaleginak egin arren, litekeena dela tokiko kirol-jardueretan gertakari arrazistak gertatzea. Zoritxarrez, hori da gaur egun pairatzen ari garen egoera eta adibide ugari adierazten digute tokiko eremuan jarduteko tresnak eta baliabideak behar direla.

⁵³ Espainiako kasuan bezala kirolean babes-figura zehatz bat balego, hori izango litzateke prestakuntzaren hartzaillea.



Atal honetan, toki erakundeentzako zenbait gomendio praktiko jorratuko dira, alderdi hauek kontuan hartuta:

- a. Nola identifikatu gertakari arrazistak tokiko kirol-jardueretan.
- b. Non gertatu da gertakaria.
- c. Zein dira udal erantzuna artikulatzeko kontuan hartu ahal (eta behar) diren printzipioak.
- d. Proposatutako jarduketak.

a. Nola identifikatu gertakari arrazistak tokiko kirol-jardueretan.

Abiapuntu moduan, gogoratu behar da Eskuliburuak ECRIren (politika orokorreko 11. gomendioa) bereizkeria-edo arrazakeria-gertakariaren erreferentziako definizioa hartu duela. ECRIren definizio horren arabera, bereizkeria-edo arrazakeria-gertakaria da **biktimak edo beste edozein pertsonak arrazakeriatzat ulertzen duen edozein gertakari**.

Definizio hau azpimarratzea oso garrantzitsua da; izan ere, ongi dakigu arrazakeriazkogertakariaren biktimek, sarritan, ez dituztela horrela ulertzen: zenbaitetan, esparru juridikoa ezagutzen ez dutelako, beste batzuetan, gertakaria arintzen saiatzen delako eta, beste askotan, arrazakeria-gertakariak biktimari ere erruduntasun sentimendua sorrarazten diolako. Ondorioz, gertakaria ikusi duten pertsonen eginkizunak berebiziko garrantzia dauka.

Gainera, gertakari arrazistek hainbat forma har ditzakete. Bi ardatz nagusitan multzoka daitezke:

- Esplizituak. Eraso fisiko edo psikologikoak izaten dira (hala nola irainak, apalestea, ezaugarri fisikoei buruzko broma edo txisteak eta abar). Arrazakeria-gertakariaren modu esplizitu hauek identifikatzeko errazagoak izan daitezke, baina askotariko oztopoak ere egoten dira.
- Sotilak. Arrazakeria-gertakariaren forma sotilak askoz ere zailago identifikatzen dira, biktimek beraiek zailtasunak izaten baitituzte jokabide horiek antzemateko. Itxuraz arrazakeria funtsik ez duen jokabide eta jarreraren multzoa izaten da, baina talde edo kolektibo baten beste batetiko botere-egoera indartzen duten aurreiritziz eta estereotipoz osatutako oinarria izaten du. Hona hemen kirolaren eremuko arrazakeria sotilaren zenbait adibide:
 - ✓ Kirolariaren izena behar bezala ulertu edo ahoskatzen ez jakiteagatik, txikigarriak, ezizenak edo izendatzeko beste modu batzuk erabiltzea.
 - ✓ Afrikar jatorriko kirolariak fisikoki indartsuagoak direlako eta kirol-jardueran rol jakinak hartzen dituztelako irudia sustatzea.



- ✓ Kirol-jardueraren zenbait egoeratan, konfiantza falta sentitzea.
- ✓ Hizkuntza ongi hitz egiteagatik zorionak ematea talde etniko edo arraza bateko pertsonaren historia ezagutzen ez denean.

Mikroerasoetan aditua den Kevin Nadalek⁵⁴ horrela azaltzen du: “mikroeraso bat egiten baduzu ez zara, halabeharrez, pertsona gaiztoa, baina zure aurreiritzien eta jendearengan duten eraginaren kontzientzia gehiago behar duzu. Gehiago landu behar dugu auzia, gizarte harmoniatsuagoa izateko”. Mikroeraso edo arrazakeria-gertakari sotilen kasuan, ikuspegi dekolonialetik jardun behar da, arraza eta/edo jatorri etnikoari lotutako aurreiritzi eta estereotipoak deseraikitzeke.

Nola antzeman orduan arrazakeria-gertakariak? Antzemateko modu bat aurreiritzi adierazleak⁵⁵ edo polarizazio adierazleak erabiltzea da. Azken horiek segurtasun-indar eta -kidegoek kontuan hartzen dituztenak izan arren, tresna baliagarriak izan daitezke gertakari batek oinarri arrazista izan duen ala ez identifikatzeko. Besteak beste, funtsezko alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Biktima gutxiengoen talde edo kolektibo etniko edo arraza bateko kide izatea.
- Egun seinalatu batetik hurbil egotea, kontuan hartuta biktimarentzat garrantzitsuak direnak (Arraza Bereizkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna, esaterako) baita erasotzailearenak ere (diktadore baten omenezko eguna, gertakari historiko esanguratsu baten data...).
- Gertakariaren momentuan egindako iruzkin eta adierazpenak; zentzu horretan, gertakaria berreraikitzean, esandako guztia hitzez hitz jaso behar da.
- Erasotzaileek zeramatzaten arropak, tatuajeak, estandarteak eta gainerako objektu ultrak.

Aurreko atalean aipatu den tokiko kirol-eragileen sentsibilizazio eta gaikuntzak derrigorrez txertatu behar du ikuspegi hori, bai kiroletako udal politikaren erantzuleentzat, baita politika hori egikaritzeaz arduratzen direnentzat ere, tokiko kirol-jardueretan gertakari arrazistak identifikatzeko gai izan daitezen.



⁵⁴ <https://www.kevinnadal.com/books>

⁵⁵ OSCE, [Los delitos de odio motivados por el racismo y la xenofobia](#)

Oso garrantzitsua da azpimarratzea gertakari horien identifikazioak eta udalaren arrazakeriaren aurkako konpromisoak ez dituztela ez udalerrria eta ez bertako herritarrak seinalatu behar pertsona gaizto moduan. Aitzitik, arrazari buruzko aurreiritziek eta estereotipoek bertan jarraitzen dutelako kontzientzia zabaldu behar da, eta komunitatearen gizarte-kohesioa indartu. Horren haritik, estrategiak lantzea proposatzen da, komunitate osoa adi egon dadin, eta gertakari horiek gertatu aurretik antzemateko behar diren trebetasunak garatzeko ekintzak ere bai.

b. Non gertatu da gertakari arrazista.

Aurreiritzi edo polarizazio adierazleetako bat gertakarien kokalekua da. Garrantzi handia dauka; izan ere, batzuetan, esanahi kultural edo erlijiosoan duten espazioetan edo inguruetan gertatzen dira. Edo baliteke talde etniko edo arrazetako pertsonen ondasunei kalteak eragin izana.

Eskuliburuaren kasuan eta kirol-esparrura mugatuz, honako esparru hauetan jazo daitezke gertakariak:

- Jarduera profesional bat garatzen ari den udal espazio bat. Kirol-lehiaketa edo -jarduera profesionalak sarritan antolatzen dira udalaren jabetzako espazioetan. Kasu horretan, litekeena da estatuko edo erkidegoko federazioek (adibidez, futbolar, saskibaloia, eskubaloia eta abarretakoak) jarduteko protokolo zehatzak izatea eta Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoen segurtasuna ere izatea, gertakariari erantzun egoki eta neurrikoa emateko.
- Amateurren kirola. Gehienetan, gertakari arrazista kirol amateurrean gertatzen da, hau da, kirol profesionala ez dena eta osasun fisiko eta mentala hobetzeko eta kirolaz gozatzeko helburuak dituena, bai banakakoa, bai taldekakoa. Hor hartzen du toki-erakundearen eginkizunak protagonismo berezia, eta hor aurreikusi eta prestatu behar dira egingo diren jarduketara zehatzak (Eskuliburuan, atal honen d letran jorratu direnak).

c. Jarduteko printzipioak.

Aurreko paragrafoan aipatu den esku hartzeko premisa horren arabera, zeintzuk dira tokiko ekintza zuzendu behar duten jarduteko printzipioak? Score proiektuak hurrengo biak proposatzen ditu gutxienez:





c.1 Biktima erdigunean jartzea.

Biktimak erdigunean jartzen dituen proposamenak biktimei entzutea dakar, berriro biktimizatu gabe eta haien segurtasuna, eskubideak, ongizatea, beharrak eta erabakiak alde batera utzi gabe. Planteamendu honen xedea da biktimek beren bizitzaren gaineko ahalik eta kontrol handiena berreskura dezaten. Era berean, zerbitzuak modu enpatikoan eta aurreiritzirik gabe ematea da helburuetako beste bat⁵⁶.

Hauek dira Score proiektuaren gomendio zehatzak:

a. Biktimari tratu egokia ematea

Udalak eta udal langileek, teknikari zein politikariak badira ere, emandako tratua begirunetsua, sentikorra, indibidualizatua eta ez-diskriminatzailea izango da⁵⁷. Oinarria entzunaldi aktibo eta enpatikoa izango da, arreta berezia jarrita biktima adingabeei edo egoera bereziki zaurgarrian dauden biktimei.

Biktima adingabea bada, bere eskubide guztien titularra izango da; beraz, hala tratatuko dira eta eskubide horiek baliatuko ditu, judizio propiorako duen gaitasuna kontuan hartuta. Haur eta nerabeen interes gorena gailenduko da momentu oro, eta estatu bakoitzean indarrean dagoen legeria espezifikokoak haur eta nerabeen adinari eta inguruabarrei buruz xedatzen duenaren arabera jardungo da.

b. Konfidentzialtasuna

Kasuaren komunikazioan, ikerketan eta bideratzean ere, parte hartzen duten eragile guztiek zorrozki errespetatuko dituzte biktimaren konfidentzialtasuna eta intimitatea, eta biktimaren identitatea edo gertakaria jendaurrean ezagutzera ematen ez direla bermatuko da, are gutxiago ustezko erasotzaileari eta bere inguruneari.

c. Autonomiarekiko errespetua

Biktimengan ohikoa da entzuten dituztela eta arreta ematen dietela sentitzeko beharra, erabakiak hartzeko informazio argi eta zehatza jasotzeko beharra, eskura dituzten baliabideen ingurukoa, eta, batez ere, egoera mingarri eta konplexu baten aurrean, erabakia haiena dela sentitzeko beharra. Batzuetan, beren erabakietan askotariko arrazoiak ezkututzen dira, kulturalak eta, bereziki, egoeraren araberrakoa, eta arrazoi horiek esplizituak edo implizituak izan daitezke. Zenbait aipatzearen: egoera irregularrean egotea, laguntzeko gizarte- edo komunitate-ehunik ez izatea, biktima izateak dakarren estigmatizazioa eta abar. Ondorioz, salaketan urrunago iristeko erabakia edo erantzun instituzional eta sozial mota jakin bat aktibatzeko erabakia biktimarekin adostu behar da beti, inolako presiorik egin gabe eta bere borondatea tartean diren gainerako eragileenaren gainetik jarrita.

⁵⁶ <https://www.acnur.org/es-es/enfoque-centrado-en-las-victimas>

⁵⁷ Begirada hauek ezinbestekoak dira aurreko puntuan adierazitako gaiakuntzetan.



d. Argitasuna eta azkartasuna

Arreta jasotzeko aukera eta biktimak eskura dituen baliabide eta aukeren inguruko informazioa argi eta azkar eskaini behar dira, bai eta biktimaren kudeaketa-gaitasunera egokituak ere, haren egoera emozionalaren arabera, egokia bada, eta aukera bakoitzak dakartzan inplikazioak ulertzen dituela ziurtatuta. Hizkera erraza erabiliko da, inguruabarretara egokitua eta izan ditzakeen ulermen eta komunikazio-zailtasun bereziak kontuan hartuta. Hobe da horrelako erantzun bat emateko gaitasuna duten beste eragile batzuegana bideratzea erantzuna atzeratu edo osatugabe eta biktimak adierazitako beharretarako modu desegokian ematea baino.

e. Bigarren mailako biktimizazio berriak saihestea

Horrelako biktimizazioak gertatzen dira biktimak sistema instituzionalarekin ezartzen duen harremanaren ondorioz, eta lotura estua dute aurreko letran adierazitakoarekin. Ezinbestekoa da proposatutako ekintzen aktibazioaren ondorioz pertsona horrek egoera traumatikoa berriz ere nozitu behar izatea eta biktimaren rola berriz ere har dezansaihestea. Hori sarritan gertatzen da, adibidez, arretan zehar biktimak gertatutakoa askotan azaldu behar badu, hainbat entitatearen aurrean eta momentu desberdinetan, behin eta berriz. Horregatik, oso garrantzitsua da arreta horretarako gaitasuna eta ezaguera duen pertsona batek ematea eta, egokia bada, deribazio egokia egitea. Deribazioaren helburua da biktimari justiziarako eta babes edo arreta eginkizunak dituzten gainerako zerbitzu publiko edo asistentzialetarako sarbidea erraztea⁵⁸.

c.2 Printzipio demokratikoetara egokitzea.

a. Botereen banaketa

Gertakaria delitua bada, justizia-administrazioak erabaki beharko du gertatutakoaren egiazkotasunari buruz, delituen bat izateari buruz eta, bidezkoa bada, parte hartu dutenentzat izango dituen ondorioei buruz. Beraz, ez da udalaren eginkizuna alderdi horietan posizionatzea.

b. Errugabetasun presuntzioa

Aurkakorik frogatzen ez den bitartean, udalaren jarduna eta proposatutako ekintzen aktibazioa errugabetasun presuntzioan oinarritu behar dira. Erantzun instituzionalak biktimaren arreta ziurtatu behar du eta herritarren bizikidetzaren berrezarri, baina ez du justizia egin behar edo neurri eredugarririk ezarri behar. Zentzu horretan, biktimarioari dagokion zigorra justizia-administrazioak ezarriko du, berme egokiak dituen prozesu batean, eta gainerako erakundeek (tokikoak badira ere) ezin dute prozesu bikoitzik sustatu (gizarte edo herritarren mailan), ez eta zigor gehigarrikerik ere ezarri, esaterako, gizarte-mailako zigorrak.

⁵⁸ Jarduketa puntu hauek "[Gorrote arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gidak](#)" emandako gomendioetan oinarritzen dira. Biltzan, Eusko Jaurlaritza. 2022

c. Gertakari arrazista ebazteko beste kanal batzuk sustatzea.

Seguruenik delitua ez diren gertakarien kasuan, erantzunak komunitatearen lane-
tik edo justizia errestituatibotik emateko ahaleginak egingo dira, biktima gertakari
diskriminatzaileen aurretiko egoerara itzultzeko bitarteko moduan.

d. Proposatutako jarduketak.

Toki erakundeak egin ditzakeen ekintza zehatzak 39. orrialdeko eskeman siste-
matizatu dira.

Gatazkak konpontzeko metodologiak ere aztertu daitezke, hala nola bitartekaritza
edo erreparazioa.

Azpimarratu egin behar da bereizkeria edo arrazakeria-gertakari guztiak, sotilak
eta behin-behinekoak badira ere, pertsonen duintasunaren aurkako erasoak direla;
beraz, gertakaria edozein motatakoa bada ere, erantzun instituzionala funtsezkoa
da giza duintasunaren, askatasunaren, demokraziaren, berdintasunaren eta giza
baliabideen Europako printzipio eta balioak babesteko.

Hala ere, erantzun instituzionala egokia eta gertakariarekiko proportzionatua
izan behar da, eta biktimaren borondatearen, premiaren eta gertatutakoaren
larritasunaren arabera aldatuko da. Jarraian ageri diren gomendioak toki
erakundeei zuzendutakoak dira, tokiko kirol jardunean bereizkeria edo arrazakeria
gertakariak identifikatzen badituzte, beren erantzuna egokitu ahal izateko.





GERTAKARI ARRAZISTA



TOKI MAILAKO HARREMANETARAKO BULEGOA / SAILA

KANAL HAU EZ BADAGO, LEHEN KONTAKTUA HURBILEKO POLIZIA IZANGO DA

GERTAKARIAREN EBALUAZIOA



EZ DA DELITUA

- Bitartekaritza
- Erreparazioa
- Justizia errestitutiboa



DELITUA DA



- Hurbileko polizia
- Osasun-zerbitzuak



SALAKETA



Zerbitzu hauek udalak eman ditzake edo gizarte-erakunde edo enpresa bat azpikontrata-tu daiteke horretarako. Toki erakundearen ezaugarriak direla eta, zerbitzu horiek sostengatu ezin baditu, litekeena da lurraldeak edo probintziak, erkidegoak edo estatuak pareko baliabideak eskaintzea. Tokiko eremuan identifikatu beharko dira baliabide erabilgarri horiek.

TOKIAN TOKIKO KIROL-ESPARRUAN, ARRAZAKERIAREN ETA ARRAZA BEREIZKERIAREN AURKA BORROKATZEKO OINARRIZKO ESKULIBURUA



d.1 Arreta, informazioa eta orientazioa.

Lehenik, komunikazio kanal bat egon behar da, harremanetarako bide bat, bereizkeria edo arrazakeria-gertakaria jakinarazteko. Komunikazio kanal horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- Konfidentziala izan behar da.
- Erabilgarria eta ezaguna izan behar da herritarrentzat, baina, bereziki, udalaren kirol- eragileentzat: horren barne daude udal kirol-espazioetako langileak eta kirol-jardueren arduradunak (klubetako zuzendariak, babes ordezkariak edo kirol-jardueren erreferenteak).
- Arreta orduak argi adierazi behar dira.

Biktimei edo bereizkeria-gertakari bat identifikatu duten pertsoneri zuzendutako arreta, informazio eta orientazio kanal hori udal-teknikariak egin dezakete edo enpresa edo gizarte- erakunde aditu baten esku utzi daiteke.

Kasu gehienetan, toki erakundeek ez dituzte behar adina bitarteko ekonomiko eta tekniko izango gai horiez arduratuko den pertsona edo talde bati heltzeko. Hala bada, oso garrantzitsua da arreta, informazio eta orientazio hori eman dezaketen probintziako, uharteko, erkidegoko edo estatuko baliabideak identifikatzea. Adibidez, eginkizun horiek betetzen dituen gizarte-erakunde aditu bat, udalerrian bertan ez badago ere, lankidetzak akordio bat sinatzeko prest dagoena.

Bestela, hurbileko polizia ardura daiteke arreta, informazio eta orientazio horiek eskaintzeaz. Zenbait proiektu europarrek hurbileko poliziaren eginkizuna azpimarratu dute bereizkeria- edo arrazakeria-gertakariak identifikatzeko orduan; beraz, aukera bideragarria izan liteke.

d.2 Sare-lana eta erreferentzia.

Arreta, informazio eta orientazio lanak nork egingo dituen zehaztu ondoren, gertakariaren izaera ebaluatu behar da (betiere biktima erdigunean jarrita, hots, bere autonomia errespetatuta). Era berean, delitua izan daitekeen ala ez aztertu behar da, egokia den erantzun instituzionala abian jartzeko.



lido horretan, erantzun instituzional horretan parte hartuko duten eragileen rola eta eginkizunak identifikatu behar dira, bereizkeria- edo arrazakeria-gertakariaren izaeraren arabera. Laburbilduz, bi erantzun-mota sistematizatu ditugu:

a. Delituzkoak ez diren gertakariak.

Delitu ez diren gertakariak badira, hau da, mikroerasoak edo arrazakeria sotilak badira, oso garrantzitsua da gertakaria ebazteko zigorkeria saihestea. Biktimaren duintasuna kaltetzen duten gertakariak izango dira, baina sailkatzen konplexuak diren jarrera eta jokabideetan oinarrituak. Kasu horietan, gertakaria ebazteko, alderdi guztien kontzientziazio eta gaikuntza handiagoak ahalbidetzen dituzten tresnak aktibatzea gomendatzen da, bai biktimarentzat, bai eta gertakaria eragin duen pertsonarentzat ere.

Tresna horiek bitartekaritzarekin, erreparazioarekin eta justizia errestitutiboarekin lotuta daude. Bitartekaritza, gatazkak ebazteko sistema den heinean, bake soziala sustatzeko instrumentua da eta zenbait funtsezko printzipio errespetatu behar ditu: alderdien borondatez egitea, konfidentzialtasuna, neutraltasuna eta inpartzialtasuna, besteak beste. Erreparazio integralak biktimak erdigunean ipini behar ditu eta leheneratze-elementuak, kalte-ordainak, errehabilitazioa, gogobetetzea (barkamena/omenaldiak) eta ez errepikatzeko bermeak aztertuko ditu. Justizia errestitutiboaren helburua da gertakariak eragindako alderdi guztiei gertakariaren eta bere ondorioen inguruan hitz egiteko aukera ematea, eta egin dutenen erantzukizun aitortpenean sakontzeko aukera ere.

Horrez gain, gertakaria eragin duenak kaltea konpontzeko modu pertsonalizatuak adostu ahalko dituzte alderdiek. Prozesu errestitutiboek, lehenik, banakako lan pertsonalizatua proposatzen dute, bai biktimarekin eta baita gertakaria eragin duten pertsonekin ere. Bi alderdiak ados badaude, topaldi bat antola daiteke, gertakaritik eratorritako kalteak erreparatzeko asmoarekin.

Justizia errestitutiboaren prozesuaren xedea bereizkeria edo arrazakeria mikroerasoen ondorioen inguruan kontzientziazioa da, eta gertakariak eragindako pertsona guztien gaitasunak indartzea ere. Erreparazio ekintzak askotarikoak izan daitezke.

b. Delituzkoak diren gertakariak.

Bereizkeria- edo arrazakeria-gertakaria delitu izan badaiteke (administratiboa zein zigor arlokoa), ezinbestekoa da gertakaria segurtasun-indar eta -kidegoei jakinaraztea. Biderik zuzenena hurbileko polizia izango litzateke, izan ere, Europako herrialde askotan, jarduteko protokolo espezifikoak izaten dituzte.



Ondorioz, arreta, informazio eta orientazioaz arduratzen den bulego edo sailak erabilgarri dauden arlo horretako protokoloak aktibatu beharko ditu.

Bigarren funtsezko alderdia osasun zerbitzuetara bideratzea da: eraso fisikoen kasuan, garrantzitsua da lesioak eraso edo gertakari arrazista baten emaitza direla adierazten duen parte mediko bat izatea.

Alderdi horiek guztiak oso garrantzitsuak izango dira biktima, kirol eremuko bereizkeria edo arrazakeria gertakariaren ondorioz, salaketa jartzeko aukera aztertzen ari bada.



4. PRESTAKUNTZA PROPOSAMENA.

Jarraian, Eskuliburuko atal guztietako edukiak prestakuntza batean erabiltzeko proposamena ageri da. Aukera bat besterik ez da eta tokiko edo estatuko testuingurura egokitu daiteke, beharren arabera: esaterako, iraupena zabaldu egin daiteke prestakuntza ofizialak egiaztatzeko betekizunei dagokienez; toki erakunde bakoitzaren esperientzia edo ibilbidearen arabera, arreta berezia jar daiteke proposatutako zenbait alderdi zehatzetan eta abarretan.

1
SAIOA



Edukia	Metodologia	
1. Arrazakeria eta arraza bereizkeriari buruzko esparru kontzeptuala	Gaian aditua den pertsona baten azalpena	30 minutu
2. Gizarte-kohesioa: alderdiak eta jarduketak-mailak	Gaian aditua den pertsona baten azalpena	30 minutu
3. Kirolaren bidezko gizarte-kohesioaren egiturazko maila eta politikoa arrazakeriaren eta arraza-bereizkeriaren aurka borrokatzeko. - Ba al da nire toki erakundean kirola sustatzeko estrategia/planik? Egotekotan, zein balio eta printzipio sustatzen ditu? Bizikidetzarekin eta guztion ongizatearekin loturarik badute? Jarrera arrazista edo diskriminatzaileen aurrean jarduteko neurri/protokolorik jasotzen dute? - Udalerrian arrazakeria eta arraza bereizkeria prebenitzeko estrategia/planik ba al dago? Egotekotan, zein da departamentu edo sail arduraduna? Kirolaren inguruko neurririk ba al du? Tokiko kirolean parte hartzen duten eragileek (udala, kirol erakundeak...) udalerriko kirol-estrategia batera sortzeko erabil dezaketen elkarrizketa-espazioen bat ba al dago?	Lana 4-6 laguneko taldetan. Beste toki erakunde batzuen esperientziak ezagutzea eta elkarlaneko ikaskuntza garatzea. Ondorio nagusiak osoko bilkuran azaltzea.	90 minutu
4. Ekintza-ildoan garapena - Kohesioaren zein alderdi dira nire udalerrientzat garrantzitsuak? - Zein ekintza gauza daiteke epe labur eta ertainera?	Banakako lana eta taldekako azalpena	30 minutu



2

SAIOA



Edukia	Metodologia	
<p>1. Maila komunitarioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da udalerriko etnia eta arrazen osaera? - Udalerrian aritzen diren kirol eta gizarte-erakundeak (batez ere arrazakeriaren prebentzioaren arlokoak). - Udalerriko gizarte-erakundeen harremanetarako espaziorik ba al da? Identifikatu diren kirol eta gizarte erakundeek parte hartzen al dute bertan? - Ba al da kirol elkarte ez formalik udalerrian? 	Lana 4-6 laguneko taldeetan	90 minutu
<p>2. Banakako maila.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein dira biztanleriaren kirol-jarduerak? - Ezagutzen al dira udalerriko etnia- eta arraza-gutxiengo kirol-jarduerak? Non garatzen dira? Zein momentutan? -Zeintzuk dira udalerriko etnia- eta arraza-gutxiengo kirol-jarduerak dituzten oztopo nagusiak? 	Lana 4-6 laguneko taldeetan	90 minutu

3

SAIOA



Edukia	Metodologia	
<p>1. Prebentzioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola antolatuta talde teknikoaren eta tokiko erakundearen prestakuntza arrazakeriaren eta arraza bereizkeriaren arloan? -Sentsibilizazio eta kontzientziazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaian aditua den pertsona baten azalpena • Lana 4-6 laguneko taldeetan 	60 minutu
<p>2. Tokiko kirol-espazioak espazio seguru bihurtzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaian aditua den pertsona baten azalpena • Lana 4-6 laguneko taldeetan 	60 minutu
<p>3. Nola antzeman jatorri etniko edo arrazaren ziozko bereizkeria-gertakariak tokiko kirol-jardueretan?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaian aditua den pertsona baten azalpena • Lana 4-6 laguneko taldeetan 	60 minutu
<p>4. Gatazkak ebazteko kanalak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Bitartekaritza -Erreparazioa -Salaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Gaian aditua den pertsona baten azalpena • Lana 4-6 laguneko taldeetan 	60 minutu



Artikulu akademikoak

- Agergaard, S. (2018). Rethinking sports and integration: Developing a transnational perspective on migrants and descendants in sports. Abingdon, Oxon: Routledge.
- Arend F. van Haaften (2019) Do birds of a feather play football together? A study on ethnic segregation in Dutch amateur football, *European Journal for Sport and Society*, 16:2, 146-163
- Besnier, Brownell y Carter Antropología del deporte: Emociones, poder y negocios en el mundo contemporáneo, (2019).
- Bottenburg, M. V., Rijnen, B., & Sterkenburg, J. (2005). Sports participation in the European Union: Trends and differences. Nieuwegein: Arko Sports Media.
- Coakley, J.J. (2009). *Sports in society: Issues & controversies* (10th ed.). New York, NY: McGraw-Hill Education.
- Coalter, F. *Sport and Social Inclusion: Evidence-Based Policy and Practice*. Social Inclusion, (2017).
- Collins, M.F. (2014). *Sport and social exclusion* (2nd ed.). New York, NY: Routledge.
- Dowling, F. Sport's 'gateway for inclusion' on the latch for ethnic minorities? A discourse analysis of sport policy for inclusion and integration.
- Eime, R., Charity, M., Foley, B.C. et al. Gender inclusive sporting environments: the proportion of women in non-player roles over recent years. *BMC Sports Sci Med Rehabil* 13, 58 (2021).
- Evans, Adam B. Sport, race and ethnicity in the wake of black lives matter: introduction to the special issue. July 2021 *European Journal for Sport and Society* 18(3):187-191
- Giulianotti, R. (2016). *Sport: A critical sociology* (2nd ed.). Cambridge: Polity Press.
- Harrison, L. (2001). Understanding the influence of stereotypes: Implications for the African American in sport and physical activity. *Quest*, 53, 97–114.
- Higgins, V., & Dale, A. (2013), Ethnic differences in sports participation in England. *European Journal for Sport and Society*, 10, 215–239.
- Jarvie, G. (Ed.). (1991). *Sport, racism and ethnicity*. London: Falmer.
- Maza Gutiérrez, G., *Deporte e Inmigración: una reflexión crítica*, (2015)
- Moustakas, L. (2024). Sport for social cohesion: a conceptual framework linking common practices and theory. *Sport in Society*, 1–19.
- Oberleitner G. and Starl, K., *Accountability in Action: Human Rights Action Plans of Local Governments* (series eds.), Human Rights Go Local Publication Series, Volume 5, HRGL Publishing, Graz, 2024.
- Rocu Patricia, *¿Es discriminado el alumnado africano y afrodescendiente en el ámbito deportivo escolar? Análisis y decálogo antirracista* (2024)
- Sepandarmaz, M., Methodological challenges and opportunities in working within a participatory paradigm in the context of sport, forced migration and settlement: an insider perspective, (2022)
- Spaaij, R. (2012). Beyond the playing field: Experiences of sport, social capital, and integration among Somalis in Australia. *Ethnic and Racial Studies*, 35:9, 1519–1538
- Walseth, K. (2008). Uniendo y vinculando el capital social en el deporte: experiencias de mujeres jóvenes de origen inmigrante. *Deporte, Educación y Sociedad*, 13 (1), 1–17.
- Wijtzes, Al, Jansen, W., Bouthoorn, SH, Pot, N., Hofman, A., Jaddoe, VWV y Raat, H. (2014). Desigualdades sociales en la participación deportiva y el juego al aire libre de los niños pequeños. *Revista internacional de nutrición conductual y actividad física*, 11, 155.



Europa

- [Activity, Sport, Play for the Inclusion of Refugees in Europe Course](#) by ASPIRE (European Sports NGO)
- [Combating Racism in and through sports: A Strategic Planning Model for Local Authorities](#), by SCORE PROJECT
- [ECCAR Toolkit for local authorities](#)
- [Guide to Discriminatory Practices in European Football](#) by FARE
- [Guidelines to report discrimination by FA](#) (English Football Federation)
- [The Inclusive Leadership in Football Award](#)
- [Integration of Refugees Through Sport](#) course by ISCA (International Sport and Culture Association) Nordplus&Erasmus+ programme
- [MONITORA project](#) (Italy, UISP) and [MONITORA Protocol for Monitoring Racism in Sport](#)
- [The Red Car](#) (Kick it out,) by European Football for Development Network
- [Toolkit on Good Governance in Sport](#) by European Platform of Sports Ethics (EPSE)
- [Surfacing, preventing and mediating discrimination through sport](#) by SENTRY Project (ERASMUS+)
- [Sport Inclusion Toolkit Increasing opportunities for migrant and minority women](#) by Spin (Sport Inclusion Network)

Nazioartekoak

- [ANTI-RACISM in SPORT](#) Campaign (Canadá) by Immigration Partnership Winnipeg

Frantzia

- [Agir contre le racisme et l'antisémitisme](#), Ministeri de l'Educació Nacional, de la Joventut i dels Esports
- [Dispositif COEXIST](#) (public schools, SOS Racisme)
- [Kit pédagogique "tous différents - tous égaux" - Idées, ressources, méthodes et activités pour l'éducation interculturelle informelle avec des adultes et des jeunes](#) (3e édition) (2018)
- [Se former à la prévention des discriminations et à la diversité](#) de la plataforma MENTOR de French Training (Direcció General de l'Administració i la Funció Pública (DGAFP) de França)
- Sport et Citoyenneté, <https://www.sportetcitoyennete.com/qui-sommes-nous>
- [Workshop "Le Fresque de l'Immigration"](#) de Kabubu

Espania

- [Desarrollo Social y Deporte: Empresa y Entidades Líderes](#), DF MÁS
- [El deporte como herramienta para el desarrollo sostenible](#), Secretaria General Iberoamericana
- [El papel del deporte en la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible](#), Nazio Batuen Erakundea
- [Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBifobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida](#). Biltzan, Eusko Jaurlaritz. 2022
- [Manual básico para clubes de fútbol que luchan por la igualdad de género](#) de Dragones de Lavapiés
- [Objetivos de Desarrollo Sostenible: un pacto para cambiar el mundo](#), Plataforma del Voluntariado de España&Fundación LaLiga&Plataforma del Tercer Sector



Europa

- Council of Europe: [“Charter of Inclusion in Sport.”](#)
- European Commission: [EU Anti-racism Action Plan 2020-2025.](#)
- European Commission: [Special Eurobarometer 525 - Sport and Physical Activity](#)
- [OSCE, Los Delitos de odio motivados por el racismo y la xenofobia](#)

Espainia

- [39/2022 Legea, abenduaren 30ekoa, Kirolari buruzkoa](#)
- [2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena](#)
- [1/2019 Legea, urtarrilaren 30ekoa, Kanarietako jarduera fisikoarena eta kirolarena](#)

Frantzia


[Plan national de lutte contre le racisme, l'antisémitisme et les discriminations liées à l'origine \(2023-2026\)](#)





2024ko maiatza

- Egileak: Nuria Lores eta Jesús Migallón [Cidaliakoak](#) (dibertsitate arloko aholkularitza-etxea)
- Diseinua eta maketazioa: [Carlos Donaire Celis](#)



Argitalpen hau Europar Batasunaren Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak (CERV, ingelesez) programaren finantza-laguntzarekin egin da. Argitalpenaren edukia SCORE proiektuko bazkideen erantzukizuna da eta ez du Europako Batzordearen iritzia islatzen.

Oinarrizko Eskuliburu hau idaztean, hizkera inklusiboa erabili da momentu oro, horren inguruko Nazio Batuen gomendioei jarraituz. Horrela, bereizkeriazko adierazpenak saihestu dira, izen kolektiboak eta bestelako egitura generikoak erabili dira (migratzaileak, herritarrak eta abar) eta generoa berariaz adierazi da helarazi nahi zen informazioak hala eskatzen duenean, irakurketa arintze aldera.